

GUaiXE.eUS



Bargagainen elkartuko dira altsasuarrak



Kirolak >> 12

Iturmendin astelehenera arte festetan daude. Irurtzunen asteazkenean hasiko dira. Irañetan etzi erromes-aldia abiatuko dute



Sakanerria >> 3/6



Lizarragako portua, zabortegei >> 7



>> 10
6.581 hektarea deklaratura

Urte erdian 155 langabe gutxiago >> 5



Irurtzunen sexu indarkeriaren kontrako kanpaina >> 6



Izurdiagako lanengatik udalak bilera eskatu du >> 10



Haurrak Aralarko ainguruaren aurrean >> 6



Sakanako Haur Triatloia Urdiainen jokatu da >> 13



Dantza ikuskizuna izanen da Altsasun >> 15

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com

Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Tel./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



Markel ZORIONAK !!
la 3 urte bete ttuzu. Jo, ze mutil kozkorra. Denok batia ospatuko degu. Muxu handi bat etxekuen partes.



Naiara ZORIONAK etxeko en partez. Muxu handi bat.

Bazkideek deskontua

Bakarra: 4,00€

Bazkideak: 3,50€

Garila

15-21

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Dantza

Nora ezean. Garilaren 16an, larunbatean, 21:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Larraiza dantza taldea.**

Zinema

Jurassic world. Garilaren 19an, asteartean, 22:00etan Irurtzungo Foru plazan.

Dokumentalak

Memoria historikoari buruzko dokumentala. Garilaren 20an, asteazkenean, 22:00etan Uhartte Arakilgo plazan. Uhartte Arakil, 80 urte memoria galtzen elkarteak.

Mendi irteerak

Panticosa-Artuste. Garilaren 16an eta 17an, larunbatean eta igandean. Etxarri Aranazko **Larrañeta elkarteko mendi taldea.**

Bizikleta irteerak

Altsasu-Kanpezu-Altsasu. Garilaren 16an, larunbatean, 8:00etan Altsasuko Baratzeko bide plazako lokomotoratik. Zikloturista taldea. 118 km.

Bakarrizketak

Maria, la vikinga. Garilaren 17an, domekan, 20:00etan Olatzagutiko Barandi tabernan.

Tailerrak

Rollo ona. Garilaren 16an, ostiralean, 16:30ean Irurtzungo Barazki gunean. Irurtzun eta Arakilgo Gazte Asanbalda.

Bestelakoak

Arkeologia indusketara bisita gidatua. Garilaren 16an, larunbatean, 11:00etan Aralarko santutegi ondoan.

Haurrak Aralarko aingeruari aurkeztea. Garilaren 17an, igandean, 12:30ean Aralarko santutegian eginen den mezan. **Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradia.**

Ur Festa Goxoak. Garilaren 20an, asteazkenean, 21:00etan Etxarri



La banda del jefe Bigun gaur gauean ariko da Iturmendiko festetan.

Aranazko igerilekuan eta garilaren 21ean, ostegunean, 21:00etan Altsasuko Dantzaleku igerilekuan. Gozamenez.

Memoria historikoari buruzko erakunde-adierazpena onartzea. Garilaren 20an, asteazkenean, 20:00etan Uhartte Arakilgo udaletxean.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garilaren 15ean, ostiralean, 20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garilaren 17an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.



Festak Sakanan

Hemen dira festak

ITURMENDI

Iturmendiarrak Karmengo Amaren omenezko festak atzo hasi ziren. Asteburu luzearen ondoren, herriko ospakizunak Santa Marina ermita ingurura lekualdatuko dira astelehenean.

Egitaraua

>> Garilak 15, ostirala. Hel-duen eguna

13:00etan Mariatxi Urrutia bikotearen emanaldia.

14:00etan Santa Marina elkartean helduen bazkaria.

17:00etan Futbito partidua frontoian.

19:00etan Antton magoa.

22:00etan Emakumeen afaria frontoian. **Arratsaldean** Areta dj eta **gauean** Banda del jefe Bigun taldearen kontzertua.

>> Garilak 16, larunbata. Karmen eta haur eguna

Goizean Meza nagusia.

13:30etan Etxe loratuen lehiaketa auzogelan.

Goizez eta arratsaldez Haur jokoak, puzgarriak, aparra eta abar.

22:00etan Zezensuzkoa.

22:00etan Herri afaria, Aitzkozarrek eginda.

Arratsalde eta **gauean** dantzaldia Trikidantz taldearekin.

>> Garilak 17, domeka. Gazte eguna

09:00etan Burunda txirindula eskolako probak.

14:00etan Kaldereten bazkari eta lehiaketa.

17:00etan Dardoen lehiaketa frontoian.

Goizez eta arratsaldez Sakaranga txarangarekin musikaldia.

22:00etan Zezensuzkoa.

Arratsalde eta **gauean** Delmai dj-rekin dantzaldia.

>> Garilak 18, astelehena. Santa Marina eguna

10:00etan Baselizara irteera.

Meza baselizan.

12:00etan Herriko trikitilariak.

19:00etan Sanpedroalden auzatea.

22:00etan Makailu jana, herri afaria.

24:00etan Festen bukaera, traka eta hau pena nik!

Arratsalde eta **gauean** Txirri Terry dj-rekin.

Oharrak: egunero, goizez eta arratsaldez auzatea

IRURTZUN

Asteazkenetik hasita, irurtzundarrek bost festa egun dituzte aurretik. Festen etxaju iragarleak 18:00etan eztanda eginen badu ere, aurretik lagun talde asko bazkaltzera elkartuko dira eta etxaju garairako fes-

ta giroa ziurtatuta izanen da. Ondoren irurtzundar eta bisitari guztien nahiak asetzeko moduko egitarauaz gozatzeko aukera izanen da.

Egitaraua

>> Garilak 20, asteazkena

17:00etan Festen kartel iragarle lehiaketako lanen erakusketa udaletxeko bilkuren aretoan.

17:30ean Zapiak eta Erraldoi eta Buruhandien Konpartsaren liburua emango zaizkie 2015. urtean jaiotako haurrei.

18:00etan Txupinazioa, festei hasiera emateko.

Kalejira eta emanaldiak, Erraldoi eta Buruhandien Konpartsak, gaita-jotzaileek, Orritz Dantza Taldeak eta Izengabe txarangak eginak.

20:00etan Orritz dantza taldearen emanaldia.

21:00etan Dantzaldia Izengabe txarangak alaituta.

22:00etan Larrain Dantza.

22:20ean Japoniar bonbak eta buruhandiak, Gernika parkean.

22:30ean Zezensuzkoa. Kultur etxean hasi, eta Gernika parkeraino.

00:00etatik 4:00etara Dantzaldia Gabenara taldearekin.

>> Garilak 21, osteguna

10:00etan Dianak, fanfarrea.

11:00etatik 12:30era Haurrendako Margotze Lehiaketa, plazan. (Materiala antolatzaileek jarriko dute).

12:00etatik 14:00etara Haurrendako parke handia. Gaia: Far West eta garbitzaile bikoitza. Foru plazan.

13:00etan Musika Eskolako fanfarrea.

17:00etan Gorputz-makillajea. Irurtzungo Pintura Gela, plazan.

17:00etatik 20:00etara Haurrendako parke handia. Gaia: Far West eta garbitzaile bikoitza. Foru plazan.

19:30ean Haurrendako txokolata-jana (zeliakoendako ere bai).

20:30ean Sun magoa. Magig spectacular ikuskizuna, Foru plazan.

22:00etan Larrain Dantza.

22:20ean Japoniar bonbak eta buruhandiak, Gernika parkean

22:30ean Zezensuzkoa. Kultur etxean hasi eta Gernika parkeraino.

22:30etik 1:30era Gau aktiboa: Video Games Party. Bideojokoak, Wii kontsolak, Play Station, Kinect dantza... Pilotaleku-plaza.

23:30etik 2:30era Disko Mugikorra, Axlor DJren eskutik.

Barazki guneko egitaraua

>> Garilak 20, asteazkena

13:00etan Barazki Gunearen irekiera txalaparta eta trikitixa doinuekin.

>> Garilak 21, osteguna.

Garagardo eguna.

Euskal Herriko artisau garagardoak dastatzeko aukera.

14:30ean Gazte bazkaria, ondoren kalejira.

19:00etan Ginkana.

23:00etan Kontzertuak: Shokdown, Txep eta Lagunak eta Dj Gordon.

3:00etan Dantzaldiaren ondoren, txosnetan: VI. Txapel Jaurtiketa Lehiaketa.

ETA JAIETAN... ZER?



JAIETAN ERRESPETUZ BIZI GARA



Marian Mendiola

Trail-usaina

astekoa

Gure herrian antolatzen den Triku Trailaren aitzakian, azken hilabeteetako baso-ibilaldien taupadak era askotakoak izan dira. Taupadak ezberdindunak ibili gara aldamenetan eta bide-lagun; batzuk karakolaren pausotan ttririki-ttriraka gelditu gabe eta besteak orkatzen moduan, arin-arin.

Ekimen honen antolatzaile, sustatzaile eta parte-hartzaileei zoriontzeko makina bat arrazoi badira ere, gogoan lau ditut.

Lehenengoa, basoan sortutako giroagatik. "Trail-useittube" zerion beheko basoari, triku-trikuko ibilbideari eta Bargari, eta giro hori barreiatzen jakin izan dute, bai oinezkoek baita bizikletan dabiltzane ere.

Bigarrena, ibilbideko markak eta zintak denborarekin jartzeagatik, aproposak izan baitira gure beheko basoan arrastinatutako gabe-ko bazterrek ezagutzeko. Orientazioan eta ibilbideen ezagutzan

trakets ibiltzen garenontzat ezinbestekoak suertatzen zaizkigu horrelako markak, Grimm anaien ipuinetako "Hansel eta Gretel" eta "Erpurutxo" modura ibiltzen baikara askotan, harrien arrastoak jarraituz, basoan ez galtzeko eta etxeko bidea aurkitzeko.

Hirugarrena, trikuharrien bideetatik ibiliaz toki zoragarri-errez gozatzeaz gain, Jentinzulok ezagutzeko esperientzia pare-


gabea eskaintzeagatik.

Laugarrena, herrian betidanik ezagutu ditugun mendi-lasterkari-ri, gaur egun puri-purian dagoen kirola, ohorezko leku bat emateagatik. Mendien korrika ibiltzen direnak sasoiaren isla direla esaten da, "makina" hots egiten zaie. Eta beste aldean oinezkoak daude, halako gutxiespen sentimendu edota konplexu moduko-arekin lasterkari-ekin alderatzen direnean.

Baina, kontuak kontu, bidea oinez ala korrika egiteko edo ibil-ian ibiltzeko hainbat modu daude eta bakoitza arrazoi desberdin baten ondorioa izaten da. Gainera, susmoa dut era honetako ekimenak guztion mesederako direla; mendizaletasunaren pizgarri, gozamen iturri, zirraragarri eta askatasunaren arra pizteko lagungarri direlako.

Horregatik guztiagatik, bejoin-deizuela trailzaleoi!!!

Nafarroako euskarazko idatzizko prentsa, irrati eta on line hedabideak


Guaixe


ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eu
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eu
MAKETATZAILEA: Garbiñe Navarro Rodriguez • maketazioa@guaixe.eu
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eu
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eu

ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Eñaut Agirrebengoa Apaolaza
ZUZENTZAILEA: Maria Luisa Zelaia
ARGITARATZAILEA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eu
DISEINU ZERBITZUA: GK• Ainhoa Etxeberria Pikabea • gk@gkomunikazioa.eu

ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • admin@guaixe.eu
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:
Mank
 s a k a n a

BAZKIDEAK
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
 HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAILA
 Hezkuntza Politikako Salburordetza

SAKANA



Bi etapa pasako dira Sakanatik.

2016 bideko Sakanako etapetarako izena ematea zabalik

Garilaren 24rako Zegama-Altsasu ibilbidea antolatu dute eta garilaren 31n Altsasu-Ataun. Izena ematea zabalik dago www.dantzalekusakana.com eta www.dss2016.eu web guneetan

Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburua 2016 bidea ekimena antolatu du, Euskal Herria 32 etapatan zeharkatuko duen ibilbidea. Horietako bi etapa Sakanatik pasako dira: 18. etapa, Otzaurten (Zegama) hasi eta Altsasun despedituko dena (garilak 24) eta 19. etapa, Altsasun hasi eta Ataunen despedituko dena (garilak 31). Sakanako bi etapak antolatzen laguntzeko Donostia 2016 ekimenekoek Altsasuko Inauterien Batzordearen eta Dantzaleku Sakana Klubeko mendi sekzioaren laguntza izan dute. Gure txokoetako altxorrek ezagutarazteko hainbat antzezlan, azalpen eta kultur ekimen izanen dira ibilbidean barna. Garilaren 31ko etapen, esaterako, Altsasuko inauteria antzetzuko dute Zelatanumunon parajeetan, Etxarrin.

Izena ematea zabalik

Izena ematea www.dantzalekusakana.org edo www.dss2016.eu web guneetan egin behar da (8euro), autobusa, aseguru eta ibilbideko kultur ekitaldiak estaltzeko. Garilaren 24an sakandarrak Otzaurtera eramateko autobusa 8:30ean abiatuko da Altsasuko geltokitik eta garilaren 31koan Ataundik buelta egiteko autobusa izanen dute eskura sakandarrek.

SAKANA

Urte erdian 155 langabe gutxiago

Garagarzaroaren akaberan 1.029 sakandar zeuden lana bilatzeko izena emanda

Nafarroako Enplegu Zerbitzua (NEZ) datuen arabera aurten go lehen seihilabetekoan %12,38 jaitsi da langabezia ibarrean eta 155 sakandar gutxiago daude lan bila. 2009ko maiatzeko datuen antzekoa da, orduan 1.054 baitziren langabetuak ibarrean. Enplegua lortu dutenetatik 121 (%78,06) gizonezkoak dira eta gainontzeko 34ak (%21,94) emakumezkoak. Adinari erreparatu gero, 155 kontratatatu horietatik 75 (%48,39) 45 urte edo gehiago dituzte; 70ek (%45,16) 25 eta 44 urte artean eta soilik 10 dira 25 urte baino gazteagoak.

Sektoreka, lehen urte erdian kontratazio gehien egin dituen zerbitzua izan da, 88 (%56,77). Industrian lan egiteko sei hilabete horietan 62 kontratu sinatu dira (%40) eta eraikuntzarako 17 izan dira (%10,97). Aurretik kontraturik ez zutenen taldean urte hasieran baino 11 langabetu gehiago daude. Lehen sektorean, berriz, bakarra.

Aipatzekoa da urte erdian Sakanan sinatu diren hamar kontratuetatik seik altsasuarren sinadura dutela, %12,26 arbizuarrenak, %6,45 etxarriarrenak, %5,16 arakildarrenak, %4,52 olaztiarrenak, %3,87 uharterenak, %3,23 urdindarrenak, %1,94 arbazuarrenak eta ergoendarrenak, %1,29 lakuntzarrenak eta ziordiarrenak. Urte erdian langabeziak gora egin du Bakaikun (1 gehiago) eta Iturmendi (2 gehiago). Irurtzunek eta Irañetak langabe kopuru bera zuten ilbeltza hasieran eta garagarzaro akaberan.

Garagarzaroa

Zehaztu beharra dago langabeziaren jaitsieraren kokka handiena aurreko hilabetearen, garagarzaroan, jaitsi zela: 102 langabe gutxiago hilabete bakarrean. Udari begira egindako kontratazioak izan



Langileak teiltua ikuskatzen.

daitezke haietako hainbat. Maiatzetik garagarzaroa 135 kontratu gehiago egin ziren. NEZ-en izena emanda dauden 1.097 sakandar horietatik 667 (%60,8) emakumezkoak dira eta gainontzeko 430ak (%39,2) gizonezkoak. Sakanako 1.097 langabeak Nafarroako lan-

gabeziaren %2,77 dira (populazioan %3,17 gara).

Adinari dagokionez, aurreko hilaren akaberan langabe sakandar gehienak, 557k (%50,77), 45 urte edo gehiago zituzten. 25 eta 44 urte arteko langabeak 434 ziren (%39,56). Kopuru aldetik azken

Udalerriak	Guztira		Sakanako langabeziaren %	Aldea urte hasierarekin
	2016-01-01	2016-06-30		
Altsasu	619	526	47,95	93
Arakil	40	32	2,92	8
Arbizu	54	35	3,19	19
Arruazu	5	2	0,18	3
Bakaiku	13	14	1,28	-1
Ergoiena	11	8	0,73	3
Etxarri Aranatz	123	113	10,30	10
Irañeta	7	7	0,64	0
Irurtzun	149	149	13,58	0
Iturmendi	19	21	1,91	-2
Lakuntza	48	46	4,19	2
Olatzagutia	96	89	8,11	7
Uharte Arakil	37	31	2,83	6
Urdiain	22	17	1,55	5
Ziordia	9	7	0,64	2
Sakana	1.252	1.097	100,00	155
Nafarroa	43.143	39.658		3.485

adin taldea 25 urtez azpikoena zen, 106 (%9,66). Sektoreei erreparatu gero, langabetuen %60,35ek (662) zerbitzuen sektorean lan egin nahi luke; industrian %22,88k (251); %5,83k (64) eraikuntzan eta %2,64k (29) lehen sektorean. Aurretik enplegurik izan ez duten langabeen %8,3(91) ziren aurreko hilabete akaberan.

Kontratazioak

Lehensei hilabetekoan sakandarrak 3.845 kontratu sinatu dituzte. Haietatik 2.016k (%52,43) gizonezkoen sinadura dute eta gainontzeko 1.829 (%47,57) emakumezkoenak dira. Kontratazioan generoen arteko parekotasuna badago ere, langabetuen zerrendan hamarretik sei emakumezkoak dira. Beraz, emakumezkoek behin-behineko kontratu gehiago sinatzen dituzte.

Kontratu motari dagokionez, gehien-gehienak, 3.592 (%93,42), aldi baterako kontratuak izan dira. Lehen urte erdian mugagabeko kontratu bihurtu direnak 135 (%3,51) izan dira. Azkenik, lan harremanaren hasieratik mugagabeko kontratuak 118 (%3,07) izan dira.

Zerbitzuen sektorean sinatu dira kontratuen %50,2 (1.930). Industriarako kontratuak %45,33 izan dira lehen sei hilekoan. Eraikuntza sektoreak kontratazioaren %3,69 (142) hartu du. Azkenik, lehen sektorea dago, kontratuen %0,78rekin (30). Hilabetero hilabetero zerbitzuen sektorea izan da kontratazio gehien egin duena. Beti kontratuen erdia gutxi gorabehera zerbitzuetako enpresetan sinatu dira, martxoan izan ezik, industriak kontratuen %55,17 bereganatu zituenean. Sakanan sinatutako 3.845 kontratuak Nafarroan aldi berean sinatutako 170.837 kontratuen %2,25 izan dira.

Amaya

Okindegi-gozotegia

ARAIA · 945 314 572 · OLAZTI · 948 460 755

ETXARRI ARANATZ · 948 461 660

ALTSASU · LANTEGIA · 948 562 205

ZUMALAKARREGI PLAZA · 948 460 026

AMAIA SUPERMERTATUA · 948 562 185

SAN JUAN KALEA · 948 564 053

NETTO · 659 200 401

OKINDEGIA - GOZOTEGIA - KAFETEGIA - OGIA - PASTELAK - KAFEA - TXOKOLATEA - PASTAK - BONBOIAK

» Irurtzun

Sexu indarkeriari aurre egiteko

Kanpaina abiaraziko duen rollo onari buruzko tailerra Barazki gunean izanen da gaur, 16:30ean

Eraso sexistakekiditeko prebentzio kanpainak aurten segida izanen du eta *Ez ezetz da* leloa berriro ere presente izanen da ospakizunaren erdian. Irurtzun-Arakilgo emakume taldeak, Irurtzongo aldeko gizarte zerbitzuaren eta udalaren laguntzarekin batera, kanpaina bat egingen du. Helburua, esan bezala, "emakumeen kontrako erasoak ekiditea eta haietakoren bat egotekotan erantzun sendoa ematea da".

Kanpaina horren bidez festa giroan emakumezkoen eta gizonezkoen arteko errespetua bultzatu nahi dute. Horrekin batera, gazteen artean ematen diren harremanak berdintasunean oinarritzea sustatu nahi dute. Aldi berean, "argi utzi" nahi dute "festetan ematen diren gehiegizko kontsumoak ez dutela inondik ere jarrera sexistak justifikatzen". *Ez ezetz da, beti*

eta beste hainbat mezu tabernetara, plazara, txosnetara, elkar teetara edota baje retarazabalduko dituzte esku-orri, pankarta, txapa edo kartelen bidez. Azken horietan zera irakurri ahalko da: *lokal honetan ez dugu eraso sexistarik onartuko.*

Tailerra

Asteazkenean hasten diren Irurtzongo festei begira egitarau bete dago iragarria Barazki gunean. Irurtzongo eta Arakilgo Gazte Asanbladak antolatu du hura. Baina festen aurretik, gaur, abiaraziko dute egitaraua. Sexu erasoak ekiditeko tailer mixtoa izanen da Barazki gunean, 16:30ean. Bertara joaten diren emakumezkoek eta gizonezkoek festa giroan izaten diren sexu erasoak aztertuko dituzte. Erasomota hori ekidin eta salatzeko eta ezetz ezetz da nabarmentzeko, solasaldiaren akaberan, 19:00etan, pankartak egingen dituzte, gero herrian jartzeko.

Etxeetaraino

Festetan "rollo ona" sustatu eta sexu erasoak ekiditeko Irurtzongo Emakume Taldeak herriko etxe guztietara esku-orria zabaldu du. Festa giroan ematen diren bost erasoren inguruan hausnartzeko aukera eskaini nahi du taldeak. Lehenik eta behin, edozein pertsona ederra den esatea, norberaren balorazioa tokiz kanpo dagoela nabarmentzen da. Asko ligatzen duten pertsonen inguruan erabiltzen diren adierazpenen inguruan gaztigitzen du esku-orriak: gizonezkoa bada miwesmena (puto amoa) eta emakumezkoa bada gaitzespena (puta). Aldi berean, pasatu gabe ongi pasatzeko gonbidapena egiten du, norberaren gorputza berarena dela nabarmenduz. Pertsona bakoitzak bere aukerak egiten dituela eta dibertsitatea errespetatzeko deia luzatzen da. Azkenik, norberak nahi duena erakusteko libre dela nabarmentzen du. Ez ezetz dela azpimarratuz. Ekimenak udalaren eta gizarte zerbitzuen mankomunitatearen laguntza du.

SAKANA

Aralarko aingeruak laguntxo gehiago izanen ditu

Igandean, 12:30eko mezan, Aralarko San Migel santutegian haurrak aurkezteko ekitaldia egingen da, Kofradiak antolatuta

Umeek eta haurrek Aralarko santutegiarekin lotura izan dezaten, Aralarko Deun Mikel Goiaingearuaren Kofradiak ekitaldia antolatu du. 13. aldiz haurrak Aralarko aingeruari aurkezteko aukera izanen dute gurasoek eta senideek. Elizkizunean parte hartzen duten txikitxoek Mikel



Haurrak Aingerua gurtzen. NEREA MAZKIARAN.

goiaingearuaren lagun izendapena eta bizi guztirako bere babesa eskaera egingen dute. Guztia haur bakoitzaren izenarekin idatzitako pergamino batean jasoa geldituko da. Izena aldeztatik eman dutenek pergaminoa igandean bertan jasoko dute. Igandean santutegiko mezara doazenez hurrengo asteetan jasoko dute aitortza.

» Irañeta

Lau igande, lau erromeria

Irintarrak erromeriaz erromeria ibiliko dira hurrengo lau igandetan. Erromeria herri sarreran dagoen San Gregorio ermitan hasiko dute, igandean. Han egingen da iganderoko elizkizuna. Herriaren iparraldean dagoen San Migel berri ermitara joko dute hilaren 24an. Hilaren azken egunean bargarantz joko dute irintarrek. Zabal dermioan San Pedro martir baseliza zegoen. Gaur egun eroria dago eta horren ordeza Basabeko bordan egingen dute. Otamena izanen dute han. Erromesaldia Aralarko santutegian despedituko dute irintarrek. Agorriaren 7an igoko dira. Elizkizuna eta gero, aterpean bazkaltzera geldituko dira.



San Migelek Irañetara egindako bisita itzuliko dute irintarrek.

» Etxarri Aranatz

Etxarriko Play Back txapelketarako izen ematea zabalik

Etxarri Aranatzko egitarauan ezinbesteko ekitaldietako bat bihurtu da Play Back txapelketa. Aurten goa 23. edizioa izanen da eta agorriaren 2an, asteartean jokatu da, 19:00etan. Etxarri Aranatzko Kultura Zerbitzutik jakinarazi dute izen ematea zabalik dagoela. Horretarako kultura@etxarriaranatz.eus e-posta helbidera mezua idatzi behar da, edo lehiaketaren egunean hura hasi baino ordu erdi lehenago aurkeztu behar da. Parte-hartzaileek euren musika CD batean eraman behar dute. Herriko hainbat eragilez osatutako epaimahaia hiru sari emanen



Aurreko edizioetan neskek dantzan.

ditu: bakarlari edo bikote onenari 75 euro; talde onenari 100 euro eta euskal abesti onenari 75 euro.

SAKANA

Hemen dira Ur Festa Goxoak

Gozamenez programaren barruan, gazteek igerilekuez gauz gozatzeko aukera izanen dute

Ur Festa Goxo Sakanako gazteei egiten zaien eskaintza ludikoa da, modu osasungarrian ongi pasatzeko aukera eskaintzen duena. Irurtzango, Uhart Arakilgo, Lakuntzako, Etxarri Aranazko eta Altsasuko igerilekuetan festa bana eginen da heldu den asteartetik aurrera. Sakanan Gozamenez pro-

grama aurrera eramaten duen batzordeak antolatu ditu festa horiek.

Guztiak ere 21:00etan hasiko dira, aurkezpenarekin. Afalgarai 21:30ean izanen da eta ogitartekoa eta freskagarria 3 eurotan eskratzerik izanen da. Igerilekura doazen gazteek gauean bainua hartu eta ur-jokoekin gozatzeko aukera izanen da. Festa txokolate beroaren dastatzearekin despeditzen da. Hala ere, herri bakoitzean festa bakoitzak bere berezitasunak izango ditu. Lakuntzan kanela hegalaria haizatuko dituzte. Altsasun, bestalde, behar bereziak dituzten Mila Kolore elkarte-ko gazteek *Goazen dantzara* ikuskizuna eskainiko dute eta Alaintxof-k su eta argi malabare ikuskizuna eskainiko du.

Gozamenez
Gazteen artean sexualitatea ikus-



Sakanako gazteak festa-giroaz gozatzeko.

pegipositibotik, adeitsutik, pluraletik eta aberasgarritik lantzea helburu duen programa da Gozamenez. Sakanan 15 urte darama indarrean. Sexualitatearen hainbat alderdiri buruzko hausnarke- ta eta eztabaida sustatu nahi du gazteen artean nahiz gazteen eta haien bitartekarien artean (fami-

lia, ikastetxea, komunikabideak...). Gazteen bizitzan sexualitateak duen tokia agerian utzi nahi du, guneko publiko eta ohikoetan. Gazteei zuzendutako ekintzak ludikoak dira eta haien bidez gure gorputzak eta zentzumenak plazer iturri eta komunikazio bide direla ohartarazi nahi zaie.

Sakanako Gozamenez Batzordea honako erakundeek osatzen dute: Etxarri Aranazko Emakumeari Laguntzeko Zentroko hezitzaileak, Altsasuko Gazteria Zerbitzuko teknikariak, Altsasuko, Etxarriko eta Irurtzango Gizarte Zerbitzuetako Prebentzio teknikariak eta Etxarriko kultur teknikariak.

Ur Festa Goxoaren egutegia

- >> **Garilak 20, asteazkena**
Etxarri Aranatz
- >> **Garilak 21, osteguna**
Altsasu
- >> **Garilak 28, osteguna**
Lakuntza
- >> **Zehaztu gabeko data**
Irurtzun eta Uhart Arakil

>> Satrustegi



Satrustegiko plaza.

Sareak eta zorua berritzeko lanak, premiazkoak

Nafarroako Gobernuaren Tokiko Inbertsio Planean erreserbako lanen artean urteak eman ditu Satrustegikoak. Bitartean lurpetik doazen sareen eta zoruaren egoera gero eta okerragoa da. Horren jakitun, Satrustegiko Kontzejuak eta Arakilgo Udalak lanak premiazkoak zirela adieraziz txostena aurkeztu zioten Gobernuari, lanak ezinbestean egin behar zirela adieraziz.

Gobernuak premia aitortu du eta Arakilgo Udalean lanak urtea despeditu aurretik eginak izatea espero dute. Horretarako lanean ari dira. 700.000 euro balio du Satrustegiko sareak eta zorua berritzea. Gobernuak %70eko diru-laguntza emanen du. Baina udalak bere zatia ordaintzeko mailegua eskatu beharko du eta hori bideratzen ari dira orain. Gobernuak gastu konpromisoa onartzean lanen deialdia egiten da. Enpresa hartzaileak obra hiru hilabeteetan despeditu beharko luke. Bestalde, Satrustegiko Kontzejuak aurten 18.022,24 euro kudeatuko ditu argiteria eta ohiko gastuak ordaintzeko.

>> Altsasu



Ikasleak eskolarako bidean.

Udalak ikasgelaz kanpoko euskararen erabilera sustatzeko laguntzen deialdia egin du

Altsasuko Udalak ikasgelaz kanpoko ekintzetan euskararen erabilera sustatzeko laguntza-deia egin du. Aurten burutuko diren ekintza horietara Altsasuko Udalak 2.700 euro bideratuko ditu. Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxei zuzendutako dira laguntza horiek, hizkuntza eredu bat edo bestea izanda ere.

Ikastetxeetako ikasgelaz kanpoko esparru jakin batzuetan bereziki euskararen erabilera sustatzeko burutzen diren ekintzak hartuko ditu kontuan deialdiak, esaterako: etxetik eskolarako autobus-ibiliak; eskolako atari ingurua, sarrera-irteera orduetan; jolastokiak (jolas-orduetan); ikastetxe-ko pasabide eta eskailerak, sarrera-irteera zein klase-aldaketa orduetan eta jantokia (otorduetan eta libre atsedenaldian).

Hiru kasutan ez da diru-laguntzarik emanen: euskararen erabilera sustatzeko eremu zehatzean

interesa ez duten jardueri; Altsasuko Udaleko beste edozein atalen bidez diru-laguntza jasoko dutenek ez eta, oro har, Altsasuko Udalen jarduketara esparruaren barruan ez daudenek ere.

Aurkeztu beharrekoa

Diru-laguntza eskaera egin nahi dutenek eskabidearekin batera honako agiriak aurkeztu beharko dituzte udaletxean: IFKaren fotokopia; egin nahi den jardueraren gaineko plangintza zehatua, jardueri lotutako diru-sarreraren eta gastuen gaineko aurrekontua eta aitorpena, objektu horretarako administrazio publikoei edo entitate pribatuei eskatutako edo haiek emandako diru-laguntza guztiena. Adierazi beharko da eskaerak ebazteke edo ebazita dauden; azkenengo kasu horretan, erantsiko da kontzesioari buruzko ebazpenaren kopia. Eskaerak aurkezteko epea asteazkenean despedituko da.

>> Lizarraga



Lizarraga portua zaborrez betetzen ari dira.

Portua? Zabortegia

Hori da bakarren batzuk aspaldi pentsatzen dutena. Mota guztiko altzariak, arropak, plastikoak, obra hondakinak... Denetarik opatu daitezke Lizarragako portu bazterrean. Eta Lizarragako basoan sartuta ere. Kontzeju-burua, Xabier Senar kexu da: "esajertua da. Jendea etorri eta nonahi botatzen ditu gauzak. Denetarik. Obra hondakinak ere. Ez dago eskubiderik".

Kontzejuak bere dermioa garbi eduki behar du, bestela isuna

jaso dezake. Horregatik, garagarriaren 9an, larunbatean portua garbitzeko auzolana egin zuten lizarratarrek. Orotariko auto baten gurdia hiruzpalau aldiz mota guztietako zaborrez bete zuten. Auzolanean dena garbitzeko betarik ez zuten izan eta zabor pila berriak agertu dira ondoren. Senarrek ez daki zein izan daitezkeen konponbidea, "baina horrela ezin da segitu. Sakanako Mankomunitateak edo beste norbaitek arduratu beharko du gaiaz".

PORTUKO
OKINDEGIA

ogiaren artisauak

Altsasu
948 563 822

Lantegia
948 467 153

Etxarri Aranatz
948 460 988

» Irurtzun

Hartzekodunen konkurtsoa Arianen

Enpresak Irurtzunen duen lantokian dozena bat langile ari dira, autobideen mantenu lanetan

Obra publikoa egiten duen Arian eraikuntza enpresa hartzekodunen konkurtsoan dago hilaren 5etik. Enpresa maiatzaren 16an aurre-konkurtsoan sartu zen. Ariango arduradunen asmoa zen hiru hileko epean hartzekodunak diren bankuekin duen zorra birfintzatzeta. Guztira 19,7 milioi euroko zorra du bankuekin (BBVA da hartzekodun nagusia). Enpresak aurre-konkurto epea despeditu aurretik jo du merkataritza-arloko epaitegira. Bitartean, langileak aldi baterako 85 eguneko enplegu erregulazio espediente dute, irai-

laren 30era arte luzatuko dena.

Enpresak 96 langile ditu hiru lantokitan banatuta. Aizoain (zentrala), Ezperun (asfaltoak) eta Irurtzun (errepide mantenua). Azken horretan dozena bat langile daude eta ELAko ordezkaria dute. Arianek Nafarroako Gobernuaren kontrata bat eskuratu zuen eta, ondorioz, Irurtzongo langileak autobien mantenu lanean aritzen dira. Haiek oporrak hartzeko espediente-pean dauden langileak hartu ditu enpresak, horrela ez du inor kontratatu behar izan.

ELAkoen ustez, horrek enpresako gainontzeko langileak baina egoera "hobean" kokatzen ditu Irurtzongoak. Sindikatutik azal-

du digutenez, "Irurtzongo lantokia ez da desagertuko. Arianek Nafarroako Gobernuaren kontrata du. Bera ez bada beste enpresa batek egin beharko du lan hori. Hala balitz langileen subrogazioa eskatuko genuke. Buzoz aldatzea litzateke".

Enpresaren bilakaeraz

Eraikuntza arloan 30 urteko eskarmentua du Arianek, batez ere obra publikoan. 2010 urtean 365 langile zituen eta zenbait espedienterengandoren 96 besterik ez daude. ELAtik azaldu digutenez, enpresak "egiturazko plantilla, administrazio alorreko mantendu du. Langile gehienek bulegoan lan



Arian enpresaren Irurtzongo lantokia.

egiten dute. Obra lortuz gero enpresak subkontratatzen dituzte. Sekretoreko enpresa guztietan gauza bera gertatzen da".

Epaitegiak konkurtsoko administrazioa izendatzeko zain daude. Hark enpresaren bideragarritasuna aztertu beharko du, zorra hornitzaileekin eta bankuekin

negoziatu eta enpresa errentagarria den edo ez ebatzi beharko du. ELA Irurtzongo eta Ezperungo lantokietako ordezkariak eta agorriaren 8an Iruñekoan hauteskundeak egiten dira bost delegatu aurkeratzeko. Bitartean, Irurtzongo ELAko delegatua eta bilangile dira plantillaren ordezkariak.

SAKANA

Pentsio duinen alde azoketan sinadurak biltzen

Nafarroako Pentsionistak Martxan taldeak gutxieneko 1.080 euroko pentsioa eskatuko du Herri Ekimen Legegilearen bidez; horretarako azoketan sinadurak biltzen ari da

Altsasuko azokan jaso dituzte, baina Irurtzun, Lakuntza, Etxarri Aranatz edo Olatzagutiko azoketan izanen dira hurrengo asteetan Nafarroako Pentsionistak Martxan taldeko kideak. Pentsio duinen aldeko Herri Ekimen Legegileak sustatu dute eta horretarako

beharrezkoak dituzten sinaduren bilketari ekin diote.

Makina bat nafarren babesarekin Nafarroako Parlamentuan lege proposamena aurkeztuko du Pentsionistak Martxanek. Gutxieneko pentsioak 1.080 euroko izatea bermatzen duen lege propio bat eskatuko du. Izan ere, Nafarroan dauden 130.033 pentsiodunek batz bestea 1.020 euroko pentsioa jasotzen badute ere, haie-



Altsasuko azokan sinadurak jaso zituzten. Sakanako azoketan izanen dira.

tatik 61.153k 600 eurora iristen ez diren pentsioak jasotzen dituzte. Azken horiek, gehienbat, emakumezko eta funtzio askotariko pentsiodunak dira. "Europak gomen datzen dituen pentsioetatik oso urrun". Taldetik adierazi dute-

nez, kontsumo prezioen indizea kontutan izanik, 2011 eta 2019 bitartean pentsio publikoen eroste ahalmenaren galeraren "aurreikuspen errealistenak" %28ra arteko jaitsiera aurreikusten dute.

» Etxarri Aranatz



Aitziber Nazabal, saioko etxarriarra.

Etxarriarra ETB2ko abentura reallityan

ETB2k Objetivo Chimborazo saioa herenegun 22:15ean mustu zuen. Sara Gandarak aurkeztuko duen saioko lehiakideek Ekuadorren dagoen Chimborazo sumendia igo beharko dute. Lehiakideek zailtasun bereziko hainbat proba gainditu beharko dituzte helburua lortu ahal izateko. Andaluzia, Aragoi, Gaztela-Mantxako eta Euskal Herriko bina bikote ariko da. Euskal herritarrek talde gorria osatuko dute, Iñaki Lekuona kapitain dutela. Aitziber Nazabal etxarriarra Egoitz Zozaia Zizur Nagusiko lagunarekin osatzen du bikotea lehiaketan. Saioa asteazkenean emanen dute, 22:15ean.

Datuak*	Pentsioak €	Pentsiodunen %	Hego Euskal Herria	Nafarroa
	150-350	6,4	402.400	8.279
	601-650	41	271.923	53.294
	651-1.000	21,5	141.901	27.811
	1.001-1.550	16,1	106.246	20.826
	1.501-2.000	8,8	58.080	11.383
	2.001 edo +	6	39.600	7.761

*2015eko irailako datuak

Ostiralero
SAIOA
9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astehenetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara

Esataria: Maider

Gaurko gaiak:

- Haizea Galartza migratzaileen aldeko Greziarako karabanaz
- Asteko albisteen eta kirolen errepasoa

107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus-en ON LINE

» Uharte Arakil

80 urteren ondoren, memoria ariketa

Asteazkenean, 20:00etan, udalak eginen duen bilkurara joateko gonbidapena egin zaie uhartearrei

Francisco Francok eta beste militar batzuk estatu kolpea eman zutela 80 urte beteko dira astelehenean. Bi egun geroago Uharte Arakilgo alkatea, Silverio Astiz Lakuntza, atxilotuzuten; lastailaren 28an Iberon fusilatuko zuten. Alkatearekin batera beste bi uhartear fusilatu zituzten: Silverio Astiz Ezkurdia (alkatearen semea) eta Victor Martirena Irañeta (bere gorpua Iberon identifikatu dute). Azken biak UGTko kideak ziren.

Eraildako uhartearrak eta "errepresio bortitza" jasan zutenak gogoan, urteurrena dela eta Uharte Arakilgo Udalak gai baka-rreko osoko bilkura berezia deitu du asteazkenearako. Udaltzat



Uharte-Iberoko omenaldian agurra.

"memoria historikoaren berreskuratze, errekonozimendu eta birgaitzearen" aldeko instituzio-adi-

razpena onartuko du. Udaletik uhartearrei batzarrera joateko deia egin zaie.

Ainara Aiestaran Ijurko alkateak jakinarazi duenez, "udalak hiru hilabete daramatza Uharte

Egitaraua

20:00etan Memoria historikoaren berreskuratze, errekonozimendu eta birgaitzearen aldeko instituzio-adierazpena onartuko da bilkura monografikoan, udaletxean.

22:00etan Udaletxe plazan, dokumental baten proiektzioa, Uharte Arakil, 80 urte memoria galtzen elkartearen eskutik.

Arakil, 80 urte memoria galtzen elkartearrekin elkarlanean aipatutako helburuen alde". Aiestaranek, bestalde, nabarmendu du Uharte Arakilgo Udala, "ahal dugun heinean" hiru uhartearren gorpuak hobitiki ateratzeko egiten ari diren lanak babesten ari dela.

» Altsasu

Errefuxiatuendako material bilketa


Frontoi zeharbidearen 14an udalak duen bajaran jasoko da

AHNA elkartek, Ayuda Humanitaria Navarra en Acción, errefuxiatuei zuzendutako material bilketa kanpaina martxan jarri du. *Bazterketa harrasiaren kontra, elkartasun bideak* leloa du ekimenak. Gaur hasi eta hurrengo bost hilabeteetan AHNAko kideak Gertu dendaren parean dagoen udal bajaran egonen dira, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00eta-

ra. Denbora tarte horretan jasotzen dituztenak Calais, Dunkerke, Lesbos eta Idomeniko errefuxiatu eremutan dauden pertsonendako izanen dira.

Adinguztietako pertsonendako arroparekin batera, jaio berri eta umeendako beharrezkoak diren jantziak, oinetakoak, txupeteak, biberoiak pixoihalak, jostailuak eta bestelakoak jaso nahi dituzte. Baita haurrendako eskola materiala ere: koadernoak, boligrafoak,

margoa... Errefuxiatu eremuak jakiz hornitu ahal izateko jakiak ere bilduko dituzte AHNAkoek: gailetak, hauts-esnea, umeendako pototxoak... Bestalde, umeak eta haurrak batetik bestera eramateko gurditxoak, motxilak, zakuak, mantak eta besteri ere ongi etorria eginen diete. Migratzaileendako onak izan daitezkeen bestelakoak ere gogoz hartuko dituzte bajaran. AHNA elkartetik, alde zurririk, sakandarren laguntza eskertu dute.



Juan Pedro Higuero errefuxiatuen aldeko materialen bilketan egiten.

SAKANA

Euskarazko errotuluendako diru-laguntzak



Errotulu elebiduna.

Errotuluak euskaraz jartzen dituzten establezimendu komertzialek, ostalaritzakoek eta elkarrekin diru-laguntzak eskatzeko aukera izanen dute. Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak horretarako deialdia publiko egin du. Haren bidez diruz lagunduko dira errotuluak, toldoak eta ibilgailu komertzialen errotulazioa.

Horretarako Mank-ek 1.500 euroko diru-saila bideratuko du. Euskara hutsean idatziak dauden errotuluak jartzen dituenari gastuaren %50 ordainduko zaio, 550 euroko mugarekin. Euskaraz eta erdaraz idatzitako errotulua jartzen dutenei gastuaren %25 ordainduko zaie, 250 euroko mugarekin. Azken kasu horretan elebitasun pizgarriaren irizpidea erabili beharko dute, alegia euskarazko testuak -tamainarengatik, tokiarengatik edo azpimarratuta egoteagatik-

lehentasuna izanen du. Euskara Zerbitzuetik argitu dutenez, ez dute diru-laguntzarik hartuko bakarrik izen-abizenak edo toponimoak dituzten errotuluek ezta gaizki idatziak edo oker gramatikalkak dituztenek. Aldi berean, Mank-ek itzulpen eta aholkularitza zerbitzua eskainiko die doan errotulua euskaraz jarri nahi dutenei.

Eskabideak Mank-eko Lakuntzako egoitzan aurkeztu beharko dira abenduaren 2a baino lehen. Eskabidearekin batera honako dokumen-

tazioa aurkeztu beharko da: IFKren fotokopia, fakturaren fotokopia, errotuluaren argazkia eta aitortpena, objektu horretarako administrazio publikoieko identitate pribatu eieskatutako edo haiek emandako diru-laguntza guztiena. Adierazi beharko da eskaerak ebatziteke edo ebatzita dauden; azkenengokasu horretan, erantsiko da kontzesioari buruzko ebazpenaren kopia. Eskatzaileak Sakanako Mankomunitatearekiko zerga betebeharrak ordainduta izatea ezinbestekoa da.

Aldatzea jarrera bat da.
Irabaztea gogobetetzea.



Hyundai Tucson Berria.
Espainian 2016ko kotxerik onena.

Aldaketaren apustua egin eta irabazi dugu. Sari handi bat lortu dugu: Espainian 2016ko kotxerik onena izatea. Kotxe handi bati saria baina batez ere jarrera bati. Mila esker Hyundai Tucson kotxean apostu ezberdin bat ikusi duzuenoi.

Aldaketaren poterea nabaritu www.hyundai.es-en

 NEW THINKING.
NEW POSSIBILITIES.

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A.
ALTSASU • 948 562 261 • IRURTZUN • 948 600 657 • www.autsanmiguel.com



Gama Hyundai Tucson: Isuriak CO₂(gr/km):
119-175. Kontsumo mixtoa (l/100km): 4,6-7,5.

SAKANA

6.581,45 hektarea deklaratu

Sakanako abeltzain eta nekazariak Europako Nekazaritza Politika Bateraturako joan den urtean baino 2.551,31 hektarea gehiago deklaratu dituzte

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuak jakinarazi digunez ibarreko nekazari eta abeltzainek 6.581,45 hektarea deklaratu dituzte Europako Nekazaritza Politika Bateraturako (NPB). Alde handiz, azalera handiena aberendako bazkara zuzendutakoa da, %79,35 (alpapa, larre iraunkorrrak, zuhaixkadun larreak, espezie pratensen sail mistoak, raygrasa). Eremu aldetik NPBrako aitortutakoetan hurrengo handiena arto-

arena da, %7,36. Hirugarrena labore azalera da (garia, garragara eta oloa), %6,84. Beste baso eremu batzuk hartzen duten azalera hurrena, aitortutako hektareen %4,49.

Aitortutako gainontzeko laborantzetatik gutxi dira 20 landutako 20 hektareen kopurua gainditzen dutenak: zalkea (30,76 ha), baba (29,45 ha) eta ekilorea (21,24 ha). Lugo utzitakoak 23,21 hektarea izan dira. Europara aitortutako 2 hektareatik gorako laborantzak hainbat izan dira: beste erabilerak (9,11 ha), txipiak (2,71 ha), egurretarako espezieak (2,55 ha), sagarrondoak (2,55ha), beste fruta-arbolak (2,49ha) eta bara-

tza (2,32 ha). Gurean ohikoagoak diren intxaurren sailak baino gehiago aitortu dira olibondoenak (1,55 eta 0,23 ha). Mahatsondoak eta gereziondoak ere aitortu dituzte.

Udalerriei dagokienez, Arakilek ditu aitortutako hektareen ia herena, %30,54. Tamainan atzetik dituenak erdia baino gutxiago dute. Uharte Arakilek segitzen dio %13,52arekin. Azken horren gertu dago Ergoiena, deklaratuak hektareen %13,30ekin. %5a gainditzen duten beste bi herri daude Etxarri Aranatz, %8,84, eta Altsasu, %5,28. Beste muturrean Irurtzun dago, aitortutako hektareen %0,99arekin.



Kosetxadoran lanean.

Bazka-laboreak

Aberendako bazka dira Sakanan aitortutako hamar hektareetatik zortzi. Bazkarako 5.222,3 hektareetatik 4.284,67 5 urte edo gehiago dituzten larre iraunkorrrak dira (ibarren aitortutakoaren guztiaren %65,1). NPBrako deklaratuak 330,8 hektarea raygras belarra da (%5,03). Bost urte baino gutxiago dituzten larreek

201,5 hektarea hartzen dituzte (%3,06). Zuhaixkak dituzten larreen hektareak 163,1 dira (%2,48). Espezie pratenseen sail mistoek Sakanan 113,46 hektarea egiten dute (%1,72). Aitortutako bazkarako gainontzeko sailak honakoak dira: 5 urte edo gehiagoko larreak 58,45 ha (%0,89), zuhaitzdun larreak 46,55 ha (%0,71) eta alpapa 23,77 ha (%0,36).

Herria	Garia	Garagarra	Oloa	Artoa	Baba	Alubia	Zalkea	Patata	Ekilorea	Egurretarako espezieak	Beste baso eremuak	Beste erabilerak*	Txipiak	Baratza	Sagarrondoak	Gereziondoak	Intxaurren	Mahatsondoak	Beste fruta arbolak	Olibondoak	Lurgorri	Bazkarako**	Guztira	Guztira %
Arakil	128,07	78,85	77,85	285,75	5,9	0	29,25	0,23	3,86	0,59	154,01	5,25	1,45	0	0	0	0	0	0	0	7,06	1231,78	2009,9	30,54
Irurtzun	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0,5	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1,33	63,05	64,88	0,99
Irañeta	0	8,77	0	45,64	5,68	0	0	0	0	0	2,08	0	0	0	0	0	0	0	0	0	4,83	144,23	211,23	3,21
Uharte Arakil	9,25	4,39	4,46	39,37	0	0	0,6	0	0	0,63	17,23	0,13	0	0,83	1,08	0	0	0	0	0	1,65	810,23	889,85	13,52
Arruazu	3,23	2,72	0,54	37,06	0	0,13	0	0,01	0	0	0,86	0,46	1,18	0	0	0	0	0	0	0	1,41	114,04	161,64	2,46
Lakuntza	3,25	1,66	3,72	14	0,42	0	0	0	0	0	0,23	0	0	0,05	0	0	0	0	0	0	0,12	169,5	192,95	2,93
Arbizu	4,76	0	8,92	5,69	6,37	0,17	0,91	0	4,37	0	5,46	0,13	0	0,33	0,2	0	0	0	0,41	0	0,31	227,56	265,59	4,04
Ergoiena	0	0	36,7	0	6,76	0	0	0,06	0	0,77	13,89	1,93	0	0,28	0	0,12	0	0	0,05	0	0	814,57	875,13	13,30
Etxarri Aranatz	1,02	0	0	48,63	0	0	0	0	12,11	0	3,03	0,81	0	0,1	0	0	0	0,79	1,15	0,84	3,12	510,41	582,01	8,84
Bakaiku	2,75	2,1	0	2,53	1,11	0	0	0	0,9	0	0,25	0,01	0	0,25	0	0	0	0	0	0	0	116,18	126,08	1,92
Iturmendi	5,6	4,73	0,41	0,64	1,36	0	0	0	0	0,14	0,88	0,08	0,08	0,08	0	0	0	0	0	0	0,41	110,91	125,32	1,90
Urdiain	22,69	23,2	10,28	4,16	1,86	0	0	0	0	0	1,58	0,03	0	0,02	0	0	0,23	0	0,29	0	2,97	210,06	277,37	4,21
Altsasu	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	79,94	0,21	0	0,09	0	0	0	0	0,15	0	0	267,22	347,61	5,28
Olatzagutia	0	0	0	0,61	0	0,07	0	0	0	0,29	15,31	0	0	0,29	1,06	0,14	0	0	0,44	0	0	198,24	216,45	3,29
Ziordia	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0,13	0	0,07	0	0	0,21	0	0	0	0	0,71	0	234,32	235,44	3,58
Sakanan guztira	180,62	126,42	142,88	484,08	29,46	0,37	30,76	0,3	21,24	2,55	295,25	9,11	2,71	2,32	2,55	0,26	0,23	0,79	2,49	1,55	23,21	5222,3	6581,45	100,00
Azaleraren	%2,74	1,92	2,17	7,36	0,45	0,01	0,47	0,00	0,32	0,04	4,49	0,14	0,04	0,04	0,04	0,00	0,00	0,01	0,04	0,02	0,35	79,35		

*Beste baso erabilerak. Ez nekazaritzarako ezta basorako.

**Alpapa, larre iraunkorrrak, zuhaixkadun larreak, zuhaitzdun larreak, espezie pratensen sail mistoak, raygrasa.

Izurdiaga

Lanengatik bilera eskaera

Udalak Gobernuari saneamendu lan batzuk egiteko eta argiteria gastuak bere gain hartzeko eskatu nahi dio

Izurdiagako trenbide-pasa kentzeko lanak direla eta, Arakilgo Udalak bilera eskatu dio Nafarroako Gobernu herri lan zuzendariari. Harekin bi gai aztertu nahi dituzte. Bate-

etik, errepide berriaren trazatuan dauden biribilguneen argiteria. Gobernuak aurreikusi du urtean 5.000€-ko gastua dela, eta kontzejuak bere gain hartu behar duela dio. Bai kontzejuan bai udalean ez daude gastu hori toki entitatearen bizkar gelditzearekin ados: "Izurdiagaren kon-

tuendako gastu handia da, 6.900 €-ko aurrekontua baitu kontzejuak". Aitortu dute kontzejuak argiteriaren gaineko eskumena dutela, baina ez errepide baten argiteriarena. Horregatik, bi borobiletako argindar gastua gobernuak bere gain hartzea eskatuko dute. Bestalde, trenbide-pasa kentzeko lanak lotu zituztenean lotuta gelditu zen Izurdiagako San Juan auzoan lan osa-

garri bat egitea. Bost etxek saneamendu arazoak dituzte eta haiek konpontzea adostu zuten. Udalak susmoa du lan hori egitea "saihesten" ari direla eta adostutako lana egitea eskatuko du; "haiendako lan txikia da, guretako handia".

Bestetik, trenbide-pasa kentzeko lanek dena jaso behar zutela baliatuta, Izurdiagako ur-horniketara sarea berri nahi zuen Arakil-

go udalak. Baina Herri Lan Departamentuak ezezkota eman zuen. Toki Administrazio Departamentuan baimena eskatu ondoren Udalak lanak bere gain hartu zituen eta lanik handienak dagoeneko eginak daude. 68.003,99 euroko inbertsioa egin du udalak. Departamentuaren baimena jaso zuten, etorkizunean diru-laguntza jasotzeko aukera izanen du udalak.

Irañeta

Trenbide ondoan trabesak birrintzeko errota jarriko da

Udalak txikitutako porlan zatiak bideak konpontzeko erabiltzea aztertuko du

Tren azpiegituren ardura du Adif enpresak. Aldian behin trenbide-etako porlanezko monoblok trabesak ordezkatu egiten ditu Adifek eta trenbide bazterrean haiek pilatuta ikus daitezke han-hemenka. Adifek haiek birrintu eta hura osatzen duten bi elementu lortzen du: porlan eta harez osatutako materiala, txiki-txiki egin da eta burdina. Bereizketa hori

egiteko errota birrintzaileak erabiltzen ditu Adifek.

Irañetako Udalak halako errota bat jartzeko baimena eman dio Adifi. Trenbidearen eta merenderoaren artean udalak dituen bi parzeletan jarriko du Adifek errota hori. Juan Anjel Beraza Gastesi alkateak jakinarazi digunez, aspal-di erabili gabeko lur-sailak dira biak. Noizbait hango belarra baliatu izan dute abeltzainek. Orain Adifi aldi baterako utziko diote. Enpresatik jakinarazi diete-



Trabesa zaharrak pilatuta.

nez, lortzen duen porlan eta harezko materiala oso egokia izan daiteke dermioko bideak konpontzeko. Udaleko kideek hori hala den aztertuko dute eta, hala bada, bideen konponketarako erabiliko dute. Baimenaren truke jasoko luke

materiala udalak. Beraz azaldu digunez, "%50eko diru-laguntzak izan arren udalak ez du bideak konpontzeko inbertsioari aurre egiteko modurik". Dermioko bideek "errepasoa" behar duela aitortu digu.

Festez aritzeko batzarra deitu dute Irañetan

Irañetako festak agorrilaren 26tik 29ra izanen dira aurten, ostiraletik astelehenera. Irañetako Udalak festez aritzeko batzarra deituko du heldu den astean. Eguna eta ordua buruzakiek jakinaraziko dute.

Juan Angel Beraza Gastesi alkateak azaldu digunez, "Irañetako festak parte-hartzaileagoak izateko, jendea gehiago inplikatzeko zer egin daitekeen aztertu nahi dugu". Batzarrera joateko gonbitea egin du alkateak.

LAKUNTZAKO TORNEOA, BUELTAN: Bi asteburuko atsedenaldiaren ondoren, bueltan da Parkea Martxan Torneoa. Larunbatean, 19:00etan, Tximistak Bandiduen kontra ari-

ko da eta Karrotillo Kaimanen kontra. Igandean, 19:00etan, Los Suaves eta Isi Team eta Burutik Jotak Biltoki neskak lehiatuko dira.

Pilota

XLV. Olaztiko San Migel Txapelketa: 12. jardunaldia jokoan

Guztira 7 partida jokatuko dira

Asteburuan XLV. Olaztiko San Migel Elkarte Pilota Txapelketako 12. jardunaldia jokatuko da. Txapelketa herrikoi honetan 43 bikote lehiatzen ari dira, hiru mailatan banatuta. Eta afizionatuen txapelketan, aldiz, 21 bikote.

12. jardunaldiko partidak

Ostiralean, 20:00etan

3.maila: Sobredo-Bobillo / Mendoza-Mendoza

2.maila: Martinez-Flores / Jabi-Pablo

Nagusiak

Azketa-Atxa / Txiapuso-Biain Ongai-Bergera / Jamar-Larraia

1.maila: Senar-Alustiza / Beunza-Iurgi

Larunbatean, 17:00etan:

3.maila: Zubiria-Sergio / Ieregi-Murgiondo

2.maila: Bazkez-Igoa / Berat-Borrega

1.maila: Sueskun-Agirre / Lopez de Zubiria-Garziandia

11. jardunaldiko emaitzak

3. maila: Razkin-Maiza 15 / Lauzirika-Muñoz 18

2. maila: Jokin-Muñoz 0 / Diaz de Gereñu-Gonzalez 18

Nagusiak: Mediavilla-Medel 7 / Txiapuso-Biain 22

1.maila: Sanz-Arana 16 / Sueskun-Nogeira 18

Larunbatean

2.maila: Etxeberria-Sarazibar 12 / Berat-Borrega 18

1.maila: Olló-Etxeberria 0 / Lopez de Zubiria-Garziandia 18

Saskibaloia

Iñigo Zabalen Basket Navarra kinka larrian

Zilarrezko LEB mailan ez dute izena eman babesle nagusirik gabe daudelako

Ez dira garai onak babesleak bilatzen. Eta hori gertatzen ari zaio Iñigo Zabala saskibaloia jokalaririk altasuarren taldeari, Basket Navarrari. Hurrengo denboraldian Zilarrezko LEB mailan aritu ahal izateko babesle sendo baten faltan daudenez, zintzoak izan dira eta momentuz, ez dute izena eman aipatu kategorian. Hori bai, Iruñeko saskibaloia klubak aurreins-kripzio eskaera egin du federazioan, aurrerago kategorian izena eman ahal izateko. Taldeak gutxienez 100.000 euroko ekarpena emango duen babesle nagusia behar du, babesle txikiak kopuru hori lortzea zaila baita. Oraindik ere enpresa handiekin harremanetan daude eta esperantzari eusten diote. Ea Iñigo Zabala taldearekin jarraitzeko aukeratu.

Pilota


Ezkurdia-Zabaleta Bizkaiko Binakako 5 t'erdian

IGANDEAN SARTUKO DIRA LEHIAN, ALTUNA III.A-BARRIOLAREN KONTRA

Sanferminetako feria bukatuta, Bizkaiko Binakako 5 t'erdian murgilduko dira pilotariak. Aspek eta Asegarcek hiruna biko aurkeztu dituzte aurreko urtean estreinatu eta arrakasta handia izan zuen Bizkaiko Binakako 5 t'erdirako. Aspek bikoteak Altuna III.a-Barriola, Irribarria-Rezusta eta Ezkurdia-Zabaleta dira eta Asegarcekoak Olaizola II-Aretxabaleta, Berasaluze II.a-Untoria eta Elezkano II.a-Urrutikoetxea.

Sakandarrak igandean lanera

Torneoa igandean abiatuko da Ezkurdia-Zabaleta eta Altuna III.a-Barriola bikoen arteko lehiarekin, Barakaldon. Sanferminetako sentsazio gaziak albo batera uzteko aukera bikaina dute Ezkurdia eta Zabaletak. Garilaren 22an Berasaluze II.ak eta Untoria Elezkano II.a eta Urrutikoetxea izango dituzte aurkari Arrigorriagan. Barakaldoko txapelkunek Irribarria eta Rezusta izanen dituzte zain Etxebarrin, garilaren 24an,



Atzera ere bikotea osatuko dute sakandarrek.

eta Olaizola II.ak eta Aretxabale-tak Arrigorriagako txapelkunek kontra jokatuko dute. Finala garilaren 30ean hartuko du Bilboko Bizkaia pilotalekuak.

Sanfermin gaziak

Sanferminak gaziak izan dira gure pilotariendako. Ezkurdiari eta Zubietari 9 tantotan utzi zieten Olaizola II.ak eta Albisuk, eta Aitor Zubieta lesionatu egin zen. Rezustak bere tokia hartu zuen, baina sanferminetako lau t'erdian

tanto eskas batengatik Ezkurdia-ri irabazi zion Urrutikoetxea eta Untoria, Ezkurdia eta Rezustaren gaintik pasa ziren (22 eta 9) eta arbuzurak aguresan behar izan zien sanferminei.

Bestalde, Jose Javier Zabaletak eta Altunak Irribarriari eta Barriolari irabazi egin zieten, 22 eta 17, baina gipuzkoarrak eta leizarrak finalera sailkatzeko nahikoa zuten 15 tanto egitea eta, hortaz, beraiek jokatu zuten atzoko finala Olaizola II.a-aren eta Albisuren kontra.

Herri kirolak

Irañeta hirugarrena Nafarroako Harrijasotze eta Ingude Txapelketetan

Zilindroarekin, kubikoarekin eta bolarekin 2.762 kilo jaso zituen guztira eta ingudeari 75 altxaldi egin zizkion

Sanferminetan eguerdiro Foru Plazan antolatzen diren herri kirol jaialdien barruan, larunbatean Nafarroako Harrijasotze Txapelketa jokatu zen. Bero sapa izugarriari aurre eginez hiru harrijasotzaile neurtu ziren. Hiru harri desberdinekin -125 kiloko zilindroa, 112,5 kiloko kubikoa eta 100 kiloko bolabimintuko txandak egin zituzten.

Txapelketa Josetxo Urrutia leizarra izan zen, zilindroari 17 altxaldi, kubikoari 10 eta bolari 11 egin eta guztira 4.350 kilo jaso eta gero. Bigarren postuan Alvaro Zugarrondo iruindarra sailkatu zen, zilindroari 13 altxaldi, kubikoari 8 eta bolari 9 egin ondoren, 3.452 kilo guztira. Eta hirugarrena Jon Irañeta irurtzundarra izan zen. Zilindroari 8 altxaldi, kubikoari 5 eta bolari 12 egin zizkion, 2.762 kilo guztira.

Asteartean Nafarroako Gizezkoen Ingude Altxatze Txapelketa jokatu zen. 7 ingude jasotzaile aritzekoak ziren baina azkenean kale egin zuen Iñaki Ibero irurtzundarra eta 6 lehiatu ziren.



Jon Irañeta irurtzundarra Nafarroako Harrijasotze Txapelketan lanean.

18 kiloko ingudeari ahalik eta altxaldi gehien ematea zen erronka eta Josetxo Urrutia leizarra izan zen txapelketa, 84 altxaldi egin eta gero. Bigarren, altxaldi bat gutxiagorekin, Imanol Martin berriozartarra izan zen (83 altxaldi). Jon Irañeta irurtzundarra hirugarrena sailkatu zen, 75 altxaldi egin eta gero.

Mikel Lasarte 3.a motozerra txapelketan

Ondoren, III. San Fermin Motozerra Txapelketaren txanda iritsi zen. Alayn Salvador, Peio Kañamares, Juan Asin eta Mikel Lasartek motozerrarekin duten gaitasuna

erakutsi zuten, 20 minutuko bi txandatan arituta, txanda bakoitzean irudi bat egin behar baitzuten. Peio Kañamares izan zen txapelketa, Juan Asin bigarren eta Mikel Lasarte hirugarrena.

Atzo Nafarroako Gizonezkoen Txinga Txapelketan aritzekoak ziren Jon Irañeta eta Iñaki Ibero txingalariak, Migel Angel Sukuntzarekin, Alvaro Zugarrondorekin eta Alejandro Fernandezekin batera. Esku banatan 50 kiloko txingekin, ahalik eta plaza gehien egitea zuten erronka. Plaza bakoitzak 28 m ditu. Baina Guaixeko erredakzioa ixterakoan oraindik ez gunden emaitzarik jaso.

Aizkora / Trontza

Iker Gorriti Nafarroako III. Mailako finalera

Finala Ezkurran jokatuko da, abuztuaren 14an, 12:00etan

Sanferminetako asteleheneko kirol jaialdian Nafarroako III. Mailako Aizkora Txapelketaren kanporaketa jokatu zen. 13 aizkolari lehiatu ziren eta jokoa finalerako 5 txartela zuden. Bi kanaerdiko erdibitzeko lane-tan Patxi Mindegia (Zubieta) izan zen azkarrena (5:16), Jesus Etxeberria (Beintza Labaien, 5:19) eta Jon Telle-txea (Beintza Labaien, 5:32) aizkolarien aurretik. Iker Gorriti (Uhart Arakil) laugarrena sailkatu zen (5:53) eta Jacinto Etxekonanea (Beintza Labien) bosgarrena (6:07). Aipatu bost aizkolarietako jokatu dute abuztuaren 14an, 12:00etan Ezkurran jokatuko den Nafarroako III. Mailako Aizkora Txapelketako finala.

Joan Flores arbuzurra zazpigarrena sailkatu zen (6:53), Iosu Agirre arbuzurra bederatzigarrena (8:53) eta Iosu Jaka etxarriarra hamahirugarrena (19:32). Hortaz, finaletik kanpo geratu ziren.

NAFARROAKO TRONTZA TXAPELKETAN SAKANDARRAK TXAPELIK GABE

Aizkora txapelketaren ondoren Nafarroako Kadete Mailako Trontza Txapelketa egon zen jokoa. Sei bikote lehiatu ziren etzanda jarritako metroko enborrari 10 epai egiteko lanean. Basaburuako Antton Irigoien eta Iker Aleman izan ziren txapelkunak (4:54). Iñigo Arizta eta Andra Mariko Jon Aranburu eta Ander Lakuntza bosgarrenak sailkatu ziren (8:11) eta Andra Mariko Irati Igoa eta Axular Jaka seigarrena (10:00).

Halterofilia

Gorka Endjiloren Anaitasunak Burgosko Torneoan irabazi zuen

Etxarriarra bigarren sailkatu zen

Garilaren 2an Burgosko Hiria Halterofilia Txapelketa jokatu zen. Bertan lehiatu zen Gorka Endjilo etxarriarra, Anaitasuna taldearekin. Lan bikaina egin zuten guztiek, Anaitasunak irabazi baitzuen, taldeka, Burgosko Torneoan. Emakumezkoetan Hallee Solá eta Saioa Dominguez lehiatu ziren eta gizonezkoetan Omar Valencia, Alvaro Lopez eta Gorka Endjilo. Omar Valencia lehen sailkatu zen eta Gorka bigarrena, arrankatzerakoan 100, bi denboratan 125 eta olinpikoan guztira 225 kg jasota.



Txirrindularitza



Nafarroako selekzioarekin aritu dira makina bat sakandar, Meridan.

Espainiakotik bueltan

Nafarroarekin aritutako sakandarrek lan txukuna egin dute. Tartean, juniorretan Ailetz Lasa 7.a eta Bakarnez Gonzalez 17.a sailkatu ziren

Bero sapa izugarriarekin jokatu ziren, Meridan, haurren eta kadeteen mailetako Espainiako Txirrindularitza Txapelketak. Nafarroako selekzioan Aralar eta Burundaklubsakandarretakotxirrindulariak eta Gipuzkoa-Rural Kutxa eta CAF Transport Engineeringtaldeetan lehiatzen diren txirrindulari sakandarrak aritu dira. Beroarengatik hainbat lasterketen ordutegia atzeratu behar izan zuten eta gure txirrindulariek izugarri sufritu behar izan zuten.

Ostiralarratsaldean kadete mailako erlojupekoak jokatu ziren. Nafarroako selekzioarekin taldekakoan lehiatu ziren Iosu Etxeberria eta Ailetz Lasa. Illes Balearsek irabazi zuten proba (10:27) eta Nafarroa 8.a sailkatu zen, 43 segundora.

Larunbat goizean haurren mailako ginkanen txanda izan zen. Gizonezkoetan Andres Garcia murtziarra gailendu zen (1:41) eta Iker Mintegi 17.a sailkatu zen. Nafarroak taldekakoan zilarrezko domina jantzi zuen Mintegik. Emakumezkoetan Eva Anguela madrildarra izan zen txapelduna (1:52) eta Maria Beraza 32.a sailkatu zen.

Arratsaldean, berotzarrari aurre egin ezinik kadete mailako lineako lasterketak jokatu ziren. Gizonezkoen mailan Daniel Cavia

gaztelarrak irabazi zuen. Iker Mintegik ez zuen zortea alde izan eta erretiratu egin behar izan zen. Eta emakumezkoetan Sara Mendez kataluniarra gailendu zen (16:00). Maria Beraza 52.a iritsi zen helmugara, 4:35era.

Igandean kadete mailako lineako lasterketen txanda izan zen. Beroa izan zen, atzera ere, protagonista. Gizonezkoetan esprintean erabaki zen txapelketa. Sergio Trueba izan zen azkarrena (1:22:35). Ailetz Lasa ziordiarra 7.a sartu zen, 3 segundora, lasterketa ona egin ondoren. Aldiz, Iosu Etxeberria iturmendiarrak ez zuen zortea lagun izan. Lasterketaren parte handian eta La Zarza portuan aurretik joan ondoren, gorpila zulatu zitzaion eta aldatutakoarekin ere arazoak izan zituen, presio baxua tarteko. Nahiz eta aurreko postuekin bat egiten saiatu, arazok bata bestearen atzetik izanda, nahikoa izan zuen tropelarekin batera proba bukatzean. 54.a izan zen, 23 segundora.

Emakumezkoetan La Zarzako igoerakerabaki zuen. 18 txirrindulari geratu ziren aurrean, Bakarnez Gonzalez altsasuarra tartean, eta erasoak etengabekoak izan ziren. Azkenean Aragoiko selekzioako Ana Monfort gailendu zen (1:33:29). Bakarnez Gonzalez 17.a sartu zen, 19 segundora, eta Joana Irastorza etxarriarra 47.a, 10:47ra.

Jon Gil tartekako helmugetako txapelduna



Igandean kadeteen mailako I. Arrasateko Saria jokatu zen (64 km). Bertan lehiatu ziren Sakana Aralar txirrindularitza klubeko Intersport Irabia taldeko txirrindulariak. Toyota Armentiako Jon Sanchez izan zen azkarrena (1:31:26). Irabia taldeko Imanol Galarza 27.a sailkatu zen, bere taldekide Jon Gil 32.a, Beñat Etxezarreta 38.a eta Urko Gorriti 42.a. Jon Gil lakuntzarra tartekako helmugan txapelduna izan zen.

Rural Kutxako Alonso bigarrena Antzuolan

Igandean LXXI. Antzuola Saria jokatu zen, Lehendakari Txapelketarako baliagarria. Baqué taldeko Txomin Juaristi iritsi zen bakarrik helmugara (2:58:03). Rural Kutxako Pablo Alonso bigarrena sartu zen, 12 segundora.

Mendia

Guztiak Bargagainera

IGANDEAN LVI. BARGAGAINGO IGOERA ANTOLATU DU ALTSASUKO MENDIGOIZALEAK KLUBAK

Ohitura denez, Erkudengo Ama erromeriaren hurrengo igandean Bargagaine bidea hartzen dute Altsasuko mendizaleak. Horrela, Altsasuko Mendigoizaleak taldeak guztiak prest dauka igandean LVI. Bargagaingo Igoerarako.

Igandean, goizeko 9:00etan jaurtikiko dute suziria, Bargagainera abiatzeko. Aurten, nobedade moduan, udaletxetik jaurtikiko dute suziria, alkatea bertan dela. 9:30ean hamarretakoa egingo dute gazteluan, eta behin Bargagainera igota, goizeko 11:00etan meza izanen da. Ondoren, eguerdian, auzatean bilduko dira mendizaleei batuko zaizkien guztiak. "Festa hau ez da soilik mendizaleena,



Giro bikaina izaten da Bargagaingo Igoeran. ARTXIBOA

herritar guztiena baizik. Goiz polita pasatzea da asmoa, Bargagaindik dauden ikuspegi zoragarriez gozatzea" azaldu du Altsasuko Mendigoizaleak taldeko Fernando Bengoetxeak.

Auzatean gazta, txorizoa eta urdaiazpikoa banatuko dira eta Altsasuko udalak zilarrezko tazetan dastatzeko ardoa eskainiko du.

Jakina, Altsasuko erromeria guztietan bezala, ez da zortzikorik faltako, Bargagainera ere itzoko baitira Altsasuko txistulariak. Txoko guztiak garbi-garbi utzi ondoren, Altsasura jaitziko dira bazkaltzera.

Bargagaingo igoerak bere txokoa du altsasuarren bihotzean. 300 pertsona pasatxo pasatzen dira Bargagaintetik egun horretan.

Mendi lasterketak

Ehunmilak 40 ordutan

Javi Domingezek irabazitako proban (23:22:37) Noureddine Jdi Baba lakuntzarra 105.a sailkatu zen (40:19:19)

Beasaingo Ultra Trail ikaragarriaren zenbakiak izutzeko moduzkoak dira: 168 km eta 11.000 metroko desnibel positiboa. Izazpi, Irimo,



Noureddine Jdi Baba lakuntzarra.

galduta pasa zituen arren. Ikusgarria. Noureddine Jdi Baba lakuntzarrak proba osatzea lortu zuen, meritu handiz. 40 ordu pasa behar izan zituen (40:19:19). Hanketan hiru baba zituela iritsi zen helmugara eta egindako ahalegina aurrez aurre nabari zitzaion. Bere bigarren Ehunmilak zen, eta bero ikaragarriari aurre eginda, despeditza lortu zuen.

Gipuzkoako Bi Haundiak

Ehunmilak Ultra Trailarekin batera Gipuzkoako 2 Haundiak (88 km) eta Marimurumendi Maratoia (42 km) antolatzen dira. G2 Haundiak proba 388 korrikalarik osatu zuten eta Daniel Agirre kataluniarra (10:09:47) eta Leire Martinez santurtziarra (12:53:23) izan ziren txapeldunak. Aritu ziren sakandarraren artean Jose Julian Lopez altsasuarra (13:58:55) eta Arantza Larrañaga uhartearra (18:42:42) izan ziren azkarrenak. Aritz Munarrizek ezin izan zuen lasterketa bukatu.

Hirukurutzeta, Erlo, Ernio, Txindoki eta Ganbo gainditu ondoren, Lizarrustitik Etxegaratera pasa eta Aizkorri eta Andraitz igo eta jaitsi ondoren, Lierni igo eta Beasainen bukatzea da erronka. Ostiralean 18:00etan hartu zuten irteera 355 korrikalarik eta horietatik soilik 178k lortu zuten proba osatzea.

Azkarrena Javi Domingez gas-teiztarra izan zen (23:22:37). Ordu pasa atera zion Adur Mendizabal zaldibiarri (24:28:41), 40 minutu

Waterpolo

Waterpoloaz gozatzer

Asteartean, 17:00etan, Uhart Arakilgo igerilekuan

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak waterpolo txapelketa antolatu du asteartean, garilaren 19an, Uhart Arakilgo igerilekuan, 17:00etatik aurrera, udako kanpainaren barruan.

Kimuetatik hasita jubeniletaraino, nahi duen orok parte hartu ahal du. Herri eta adin desberdinetako neska-mutikoak nahasi egingo dira taldeak sortzerakoan, ahalik eta talde orekatuenak sortuz. Aurreko urtean, Lakuntzan, 50 neska-mutiko lehiatu ziren.



Aurreko urtean giro bikaina izan zen waterpolo txapelketan.

Mank-eko kirol zerbitzuan eman behar da izena (948 464 866, kirolak@sakana-mank.com) edo

herrietako monitoreei esanda, eta izena emandako kopuruaren arabera autobusa antolatuko da.

Triatloia

Sakanako XV. Haur Triatloia jokoan

Urdiaingo igerilekuetan jokatu da, bihar, larunbatean, 10:00etatik aurrera

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak dena prest du bihar, garilaren 16an, larunbatean, Urdiaingo igerilekuetan Sakanako XV. Haur Triatloia jokatzeko. Horretarako hainbat entitateen laguntza izan du Mank-ek: Sakanako Triatloi Taldea, Urdiaingo Aitziber elkarte, Urdiaingo Udala eta Nafarroako Triatloi Federazioa. Goizeko 10:00etatik aurrera, triatloi proba politez gozatzeko aukera izango da Urrizti eta San Pedro paraje ederretan. Aipatu probak Nafar Kirol Jolasetarako balagarriak dira.

100 triatleta inguru

Ondoko kategoriendako probak jokatu dira: aurre-benjaminak, benjaminak, kimuak, haurrak, kadeteak eta juniorrak. Lehendabizi nagusienak hasiko dira lehian,



Igeri egin ondoren, txirindulan eta korrika aritu beharko dute, Urdiainen.

juniorrak eta kadeteak, eta kategoria txikiko probak jokatu dira ondoren.

Sakanako XV. Haur Triatloian parte hartzeko aurretik izena emana beharra zegoen www.navarratriatlon.com web gunean eta atzo, ostegun gauean, bukatu zen epea. Erredakzioa ixterakoan 100 triatleta inguru zeuden izena emanda. Nolanahi ere, informaziorako Mank-eko Kirol Zerbitzura hots egin daiteke (948 464 866 telefonoa). Aurreko urtean 90 triatleta pasatxok hartu zuten parte. Tartean izanen dira Mank-eko Udako Triatloi Cam-

pusen dabilzan sakandarrak.

Igeriketa probak Urdiaingo igerilekuan jokatu dira, eta bizikleta probarako zirkuitu ederra prestatu dute Urdiaingo igerilekuetako bidetik abiatu eta Sarabe paraje baina. Korrika egiteko ere zirkuitua antolatu dute igerilekuetatik gertu. Triatletek derri gorrezkoa izanen dute kaskoa eta mendiko bizikleta erabiltzea. Aipatzekoa da probak irauten duen bitartean partaideek ezingo dutela kanpoko laguntzarik jaso. Proba gauzatzen den bitartean ibilbidea zaindua, markatua eta trafiki-

Proben distantziak

Juniorrak (97-98): 10:00etan
405 m igeri (15 luze), 12 km bizikleta, 3 km korrika.

Kadeteak (99-01): 10:00etan
405 m igeri (15 luze), 12 km bizikleta, 3 km korrika.

Haurrak (02-03): 11:45ean
216 m igeri (8 luze), 6 km bizikleta, 1,5 km korrika.

Kimuak (04-05): 12:30ean
108 m igeri (4 luze), 3 km bizikleta, 750 m korrika.

Benjaminak (06-07): 13:15ean
54 m igeri (2 luze), 1,5 km bizikleta, 350 m korrika.

Aurre-benjaminak (08-12): 13:30ean
27 m igeri (luze 1), 1 km bizikleta, 200 m korrika.

koari itxita egonen da. Proba bukatzerakoan triatleta guztiei ogitar-tekoa eta zukua banatuko zaie.

Igeriketa, txirindularitza eta atletismoa uztartzen dituen kirol honetaz gozatzeko primerako aukera da biharkoa, ikuskizun polita baita. Jakina, Urdiaingo igerilekuko paraje bikainetaz gozatzeko bada nahikoa sari, eta horregatik proba jarraitzea hurbiltzera animatu du Mank-ek.

Igeriketa

Sakana Igeriketa Taldeko 47 igerilariak denboraldiari agur



Sakana Igeriketa Taldeko nagusiak.

Sakana Igeriketa Taldeak 2015-2016 denboraldiaren balorazio positiboa egin du. Taldeak 47 igerilari dauzka, 8 benjamin mailan, 23 kimuen mailan eta 16 haurren mailan eta goiko kategorietan. Denboraldia ekainean despeditu zen eta orain merezitako atsedena hartuko dute igerilariak, Altsasuko festen ondoren berrirolan hasteko, 2016-2017 denboraldian.

Sakana Igeriketa Taldeak adierazi digutenez, Altsasuko eta Etxarri Aranazko Udalen eta Sakanako Mankomunitatearen laguntza dute. "Altsasuko Udalak Zelandi kiroldegiko igerilekuko bi kaleen erabilera uzten digu eta diru-laguntza ematen digu" zehaztu dute.

Sakana Igeriketa Taldean diotenez "klub apala gara, baina gure igerilarien maila ona da". Horre-

la, Nafar Kirol Jolasetan igeriketan aritzen diren 22 klubetatik 10. postuan sailkatu dira Sakanakoak. Eta, horretaz gain, Euskadiko Txapelketetan aritzen dira Sakanako taldeko benjamin eta haurren mailako igerilari batzuk. Eta Espainiako Txapelketetan aritu izan dira ere klubeko igerilari batzuk. "Garilaren bukaeran taldeko igerilari bat Espainiako Txapelketetako 50 m libreetan lehiatuko da" azaldu digute klubeko kideek.

Unai Irigoien brontzezkoa Euskadiko Txapelketan

Garilaren 2an eta 3an Euskadiko 2016ko Igeriketa Txapelketan aritu ziren Sakana Igeriketa Taldeko Ane Morentin, Unai Rodriguez eta Iker eta Unai Irigoien, benjamin eta kimuen mailan. "Aipatu txapelke-

tan parte hartzeko minimo batzuk eskatzen dira eta gurea bezalako talde apal batendako minimo horiek betetzea jada, arrakasta da" adierazi dute klubeko kideek. 100 m libreetan, 200 m libreetan, 400 m libreetan, 100 m bularretan, 100 m tximeletan, 100 m estilotan eta 400 m estilotan lehiatu ziren. Unai Irigoien 400 m libreetan lehiatu zen beste 23 igerilariarekin. 13.a sailkatu zen, baina bere kategorian, 2003 urteko mailan, hirugarrena sailkatu zen eta brontzezko domina ekarri zuen. Domina janzteaz gain, garilaren bukaeran Madril en joko-

tuko diren Espainiako Igeriketa Txapelketetan lehiatuko da Unai Irigoien, 100 m libreetan.

Igeriketaren onurak

Igeriketaren onurak anitzak dira. Gorputzaren garapen egokiagoa dute igeriketa lantzen duten gaztetxoek eta igeriketaren bidez motorraren-landutako muskulu-masaren- eta zamaren-gorputz-gantza-arteko erlazioa modu egokian erregulatzen da. Gorputzaren malgutasuna hobetzen du igeriketak eta gorputzaren tamaina handieneko muskulu-multzoak garatzen ditu. Igeriketaren bidez neska-mutikoek hobeto hartuko dute atsedena eta hobeto jango dute, eta, jakina, elkarren artean erlazionatzeko eta lagun berriak egiteko primerako aukera da igeriketa.

Sakana igeriketa taldean izena emateko



Sakana Igeriketa Taldearen nahia Altsasu eta Arbizuko igeriketa ikastaroak bukatzen dituzten neska-mutikoak bere klubera erakartzea da, igeriketan jarraitu dezaten. Taldea zabalik dago interesatu guztiendako eta Sakana Igeriketa Taldean matrikula egiteko irailaren 12ra arteko epea dago, 657 60 29 65 telefonora hots eginez.

Non erabili

NEREA ILEAPAINDEGIA

LAKUNTZA

Garbitu, moztu eta apaindu: 26 €.

MARTXUETA

IRURTZUN

% 5eko deskontua irakurketako liburuetan.

REDIN LURRINDEGIA ETA KOSMETIKA

ALTSASU

%5eko deskontua osagarrietan.

LIZARDI ESTETIKA ZENTROA

ETXARRI ARANATZ

%5eko deskontua depilazioetan.

HOSTO GORRI ALTZARIAK

ETXARRI ARANATZ

Dendako produktuetan % 5eko deskontua.

ARGIRO OPTIKA

ETXARRI ARANATZ

%15eko deskontua graduatuetan eta %5 eguzkitakotan.

ZELANDI KIROLDEGIA

ALTSASU

Lehenengo matrikula doan.

IZARA

ALTSASU

%5eko deskontu zuzena etexeko jantzi eta osagarrietan.

TXIKITXO

ALTSASU

60 €tik gorako erosketetan, %10eko deskontu txartel bat hurrengo erosketan erabiltzeko.

NAMASTE YOGA

ALTSASU

Bi yoga klase doan.

www.guaixe.eus-en zerrrenda osoa ikusgai



BAZKIDETZA 50€
948 564 275



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

www.tanatoriosirache.com



Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu

Bidali mezua eskelak@guaixe.eus-era edo hots egin 948 564 275 telefonora

Oroigarriak

egiten ditugu



gk
KOMUNIKAZIOA

948 564 275
Foru plaza, 23-1 Altsasu
gk@gkomunikazioa.eus

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

2 TEKNOLOGIA

3 LANA/NEGOZIOAK

4 KONTABILITATEK

5 IBILGAILUAK

6 HARREMANAK

7 AISIA/KIROLA

8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**

Guaixe astekarrian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75

Posta elektronikoa: iragarki@guaixe.eus

HIGIEZINAK

ETXEBIZITZAK

SALDU

Etxarri Aranatzan pisu bat salgai 66.000 €, prezioa negoziagarria da! 84 m² erabilgarriak, berrituta eta eguzkitsua. Nire telefona 654 23 41 02 da.

OPATUTAKOAK/GALDUTAKOAK

GALDUTAKOAK

Opel Corsa baten giltza galdu da San Miguel inguruan. Topatu duenak dei dezala 627 139 661 edo 948 460 540 telefonoetara.

OHARRAK

Festetako herri bazkaria. Garilaren 26an, aste-artearen izanen da. Txartelak 17 eurotan, Koxko tabernan eta Estankon salgai daude. Erosteke azken eguna, hilaren 23a, larunbata. Menua: entsalada, iberiko karrilerak oporto saltsan, etxean egindako flana, kafea eta kopa.

Bakaikuko rock and roll bazkaria. Garilaren 24an, domekan, rock and roll in Bakaiku egunaren barruan herri bazkaria antolatu dute. Txartelak 25 eurotan Koxko eta Kontxiren dendan salgai daude, igandera arte.

Irurtzongo kalderete bazkaria. Festetako ostiralean, hilaren 23an, eginen da kalderete bazkaria. Antolatzaileek ogia, ardoa, mahaiak eta aulkiak jarriko dituzte inskripzioa egin eta ordaintzen dutenendako. Inskripzioa udalean egin behar da, uztailaren 19a baino lehen (hau barne). Plazako karpa inskribatutako pertsonendako erreserbatu da. Parte hartzaileen laguntza eskertuko dute 12:00etatik aurrera mahaiak eta aulkiak jarri eta kentzeko.

Odol-emaileak. Abuztua: Iean Arbizu (17:00-18:00), eta Uhartte Arakil (19:45-20:45); 16an, 17an eta 18an Altsasun (17:00-20:30), 19an Altsasun (9:30-13:00).

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.eus.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeako eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoaren inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkartea eta denda. Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri.

Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako denda (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arrosa, pasta, galletak, txokolata, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezti, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ospina. Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiakoak direnak, eta Etxarri jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehasak; ohe arropa; esku oiha; sukaldetako tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak. Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenean. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalak, eta baita etorkin beraie ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzan, asteartean Irurtzunen eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu

648 07 07 10 edo immigrazioa@sakanamank.com posta elektronikoa.

Gazteendako sexualitate aholkularitza. Hileko lehen asteartean, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean (Burunda kaletik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

Izan zaitez Mintzakide! Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, astean behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratu du: kafea hartu, paseatu baina beti euskaraz. Informaziorako: 607 624 392 telefonoa, sakana_mintza@aek.org e-posta edo sakanamintza.blogspot.com ataria.

Euskal Memoria Fundazioak babesleak behar ditu. Euskal Herriaren memoria berreskuratzea helburu duen Euskal Memoria Fundazioak 6000 babesle behar ditu. Informazio guztia: www.euskalmemoria.com web gunean.

Iparraldeko Ikastolak laguntzeko. Bi kontu zenbaki zabaldu dituzte jendeak dirua emateko: 3035-0059-82-0590731197 (Euskadiko Kutxa) eta 2101-0045-97-0003310786 (Kutxa).

Garraio laguntzarako diru bilketa. Sortzen ikasbatuazek eremu erdaldunekoak diren eta ikasketak D ereduaren egiteko beste eskualdeetara joan behar duten ikasleek garraioa laguntzeko Euskadiko Kutxan hurrengo kontu zenbakia zabaldu du: 3035 0058 36 0581182278.

Emakumeendako doako aholkularitza juridikoa. Senarrak ez dizula seme-alaben aldeko mantenu-pentsioa, tratu txarrak sufritzen ari bazara, dirurik ez baina dibortziatu nahi duzula, izateko bikotearen eta ezkontzearen aldeak. Emakumearen Bilgunera jo, Altsasuko Gure Etxean (948 564 823 edo berdintasuna@altsasu.net).

Ezgaiztuen Elkartek bazkideak eta laguntzaileak behar ditu. Sakanako Ezgaiztuen Elkartek bazkide kanpaina martxan jarri du. Horretarako 660 29 96 17 telefonora hots egin behar da. Bestalde, Sakanako ezgaiztuek aisialdi behar dute. Laguntzaile izan nahi baduzu deitu

649 189 249 (Eladia). Eskerrik asko Sakanako Ezgaiztuen Elkartetik.

Itzulpen zerbitzua. Sakanako Mankomunitatearen zerbitzua ibarreko udalek eta mankomunitateek, komertzioek, enpresek eta elkarteek erabil dezakete urte gutzian zehar. Doakoa da. Itzuli beharrekoak jendaurrean edo agerian egon behar duen testua izan behar du. Eskariak mankomunitateko euskara zerbitzura egin behar dira (948 464 840 edo itzulpenak@sakana-mank.com) Ez dira bilera edo aktak itzuliko, ezta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den ezer ere. Gehienez ere 5 orrialdeko dokumentuak itzuliko dira.

Naziotasun eskubidearen urraketak salatze-ko telefonoa. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean ageri den naziotasun eskubidea urratzen jarraitzen dute frantziar edo espainiar izatera behartzen gaituztean. Gurea ez den naziotasuna adieraztera behartzen gaituzten bakoitzean (edozein izapide administratibo edo ekonomiko egiterakoan, botoa ematerakoan, etab.) salaketa egiteko telefonoa jarri du Udaltzaintza: (0033) 559 595 648.

Saharan giza laguntza banatzeko garraio basea. Hori egiteko Mugarik Gabeko Teknikari eta Langileen Elkartek kontu korrontea zabalik du Rural Kutxan: 3008 0085 86 1463467025

Alkoholikoen lagun eta familiartekoen laguntza taldea. AL-ANON elkarte alkoholikoen lagun eta familiartekoen laguntza taldea da. Harremanetarako, deitu 639 400 406 telefonora.

Preso sakandarrei idazteko deia egin du Etxerat-ek. Sakanako Etxerat-ek Sakanako preso-iei idazteko deia egin du. Hona hemen Etxerat-ek emandako helbideak: Unai Parot Centro Penitenciario Puerto III, Ctra Jerez- Rota km 4,5, 11500 PUERTO DE SANTA MARIA - Cadiz; Luis Mariñelarena Centro Penitenciario de Texeiru-Curtis, Estrada de Paradela s/n, 15310 CURTIS, A Coruña; Asier Karrera C. Penitenciario La Moraleja, Carretera Local P-120, 34210 DUE-AS - Palencia; Juan Ramon Karasatorre Centre Penitenciaire de St. Martin de Re, La Citadelle, 17410 SANT MARTIN DE RE - Francia; Oihan Barandalla 28849 G. Maison di'Arret des Hauts

de Seine 133. Avenue de le Comune de Paris. B.P. 1414. 92014 Nanterre (Francia); Jon Gurutz Maiza Artola 4635 Maison Central de Saint Maur, Bel Air, 36250 Saint Maur Cedex, France) eta Hodei Ijurko (C.P. A Lama. Monte Racelo s/n. 36830. A Lama. (Pontevedra) Galiza;

Izen-abizenak euskaratzea erraza eta laburra da. Euskal izen-abizenak badituzu, baina agiri ofizialean erdal grafian agertzen baldin badira, orain duzu hori aldatzeko aukera. Gaur egun egin beharrekoak oso errazak dira, eta denbora motzean egin daitezke erroldatuta zauden herriko Erregistro Zibilean edo udaltzean bertan. Altsasuko Erregistro Zibila: 948 562 860, Etxarri Aranazko Erregistro Zibila: 948 460 166, Irurtzongo Erregistro Zibila: 948 500 051. Gainerako herrietan erroldatuta daudenek udaltzera jo beharko dute, bulego orduetan. Informazio gehiago Sakanako Euskara Zerbitzuan (948 464 840).

JAIOTZAK

- Anas El Ogd El Kasmi, uztailaren 1ean Olaztin.
- Inartz Galparsoro Etxebeste, uztailaren 6an Etxarri Aranatzan.
- Aiur Lakuntza Iriarte, uztailaren 8an Arbizun.
- Aiur Begiristain Asensio, uztailaren 9an Etxarri Aranatzan.

EZKONTZAK

- Juan Carlos Beraza Goldarazena eta Josefa Ezkerro Salvador, uztailaren 10ean Irurtzunen.

HERIOTZAK

- Monica Ilegi Ilegi, uztailaren 11n Arbizun.

Informazio hau epaitegietan eta udalengan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.



Nora ezean, dantza ikuskizuna

Larunbatean, 21:00etan,
Altsasuko Iortia kultur
gunean

Lizarrako Larrazia dantza taldeak aurten mende erdia bete du. Hori dela eta, *Nora ezean* dantza ikuskizuna sortu zuen, Altsasun bihar ikusteko aukera izanen dena. Musikariak, dantzariak eta aktoreak bat egiten dute eszenan ikuskizun eder-rra eskaintzeko. Pertsona ugari-
ren lana ikus-entzunezko efektuekin lagunduta ikusgai izanen da.

Martin jaikia dago, kafea eskutan. Goizeko 6:00ak dira, eguzkia ateratzen ari da eta Martinek triste begiratzen dio leihotik bestalde

dagoen Bermeoko portu zahar-
rari. Haurrak eta Begoña lo daude. Azken gaua dute Bermeoko pisu txikian. Martinen masailean behera malkoa isurtzen da. Ez dagoatze-
ra bueltarik. Hori da *Nora ezean* ikuskizunaren hasiera.

Nafarroako Gobernuaren Kultur programaren barruan dago Altsasuko emanaldia. Ikuskizun bakoitzarekin batera jarduera osagarri bat eskaintzen du programak. Altsasuren kasuan San Pedro inguruko hariztian zaldiz ibiltzeko aukera. 10:00etatik 17:30era izanen da horretarako aukera Errotain Zaldi Ibilaldiak enpresaren bidez. 687 424 839 edo 626 749 149 telefonoen bidez edo errotain@gmail.com e-postaren bidez eman daiteke izena.



Igandetik igandera dantzan

Eta gehiago ere egiten dute Irantzu Gonzalez Azpiro-
zen dantza eskolak anto-
latu duen campusean izena eman dutenek. Otadiko Kristo Deuna aterpetxean 19 ikasle dira dantzan trebatzen ari direnak. Igandean sartu ziren eta igandera arte luzatuko dute dantzaren inguruko egonaldia. Dantzagarakidea, klasikoa, gaur egungo dantza eta gorputzaren kokapen ego-
kia lantzen ari dira.

Gonzalezek aparte, Jenny Domingo -funky irakaslea-, Iñigo Palomo -begiralea eta kirol entrenatzailea- eta Andrea Galbete -ekin-
tzen arduraduna- dira ikasleekin daudenak. Izan ere, guztia ez da dantza campusean. Igerilekura edo Donostiara joan dira, body paint saioa, makillaje tailerra, argazki tailerrak... dituzte eta beste hainbat kontu. Gainera, larunbatean Iortian dagoen dantza ikuskizunarekin gozatzeko aukera izanen dute.

Barandiren lehen urteurrena ospatzeko egitaraua

Olatzagutiko Barandi tabernak hasieratik kultur eskaintza izan du osagarrietako bat eta urteurrenean hala izanen da. Igandean, 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 18:30era, haurrendako jolas parkea izanen da. 12:30etik 14:00etara poni ibilaldiak eskainiko ditu. 19:00etan Larri Pompierrek pailazo eta malabare ikuskizuna segiko du. Eta despeditzeko, 20:00etan, Mari la vikingaren bazarriketa saioa izanen da. Aida tele-sailean La Junca pertsonaiaren papera jokatzeko du Marik.

Plaza zinema areto bihurtuta

Irurtzungo Kultura Kontseiluak eta Udalak, beste urte batez, Udako Zinema zikloa prestatu dute. Hurrengo bost asteetarako Irurtzungo Foru plaza zinema areto bihurtuko duten emanaldi bana iragarri dute. Heldu den asteazkenean, festen bezperan, izanen da aurrenekoa eta ondorengo lau saioak asteazkenean izanen dira. Guztiak 22:00etan hasiko dira. Azken emanaldia, ohi denez, euskarazko film baten emanaldia izanen da.

Egitaraua

- >> **Jurassic world**
Garilaren 19an, asteartean.
- >> **Pesadillas**
Garilaren 27an, asteazkenean.
- >> **Everest**
Agorrilaren 3an, asteazkenean.
- >> **La familia Belier**
Agorrilaren 10ean, asteazkenean.
- >> **George eta dragoia**
Agorrilaren 17an, asteazkenean.

Arretxe Xixonen

Xixongo Aste Beltza ostira-
rean hasitzen eta igandera arte luzatuko da. Literatura, kultura, aldarrikapena, festa eta giro herri-
koia berezko dituen ekimenak 29. edizioa du aurten. Ehundik gora idazle pasako dira Xixondik, haien lanak aurkeztu edo mahai-ingu-

ruetan parte hartzera. Aurrene-
koen artean dago Jon Arretxe
arbizuarra. Toure sagako laugarren liburua, *Estolda jolasak (Jue-
gos de cloaca; 2015, Erein)* aurkez-
tuko du. Herenegun izan zen, A
Quemarropa espazioan, Paco
Gomez Escribanok gidatutako
aurkezpenean.

bazterretik

Juankar Mugartza

Jaietan ere gure nortasunari eta gorputzari begirunea zor

Uda garaian gara eta gure herrietan jai giroa da nagusi. Urte osoan lan egin ondoren atsedena behar dugu, ongi merezitakoa, gainera. Arbizukoak izan ziren lehenak eta pixkanaka-pixkanaka ibarreko gainerako herriak joango dira batzen festara. Hala eta guztiz ere, aurtengo jaien garaia Iruñeko Auzitegiak emandako epai batek baldintzatuta dator-
kigu, legeari iruzur egitea lepora-

tu baitiete Etxarriko eta Lakuntza-
ko udalei iazko jaietan ikurrina
balkoietara ateratzeagatik. Bi uda-
lerri hauek ez daude bakarrik zen-
tzugabeko zigorraren festa hone-
tan. Izan ere, hormarabegira, belau-
nikatuta, besoak gurutzean eta
hainbat eta hainbat liburu eskuen
gainean beste herri batzuk ere ipi-
ni dituzte: Berriozar, Leitza, Otei-
tza, Lizarra, Tafalla eta Iruñea. Herri
garrantzitsuak dira horiek guztiak,
maitagarriak, eta horien artean
daude gureak. Hoberenen artean.
Gure nortasunaren defentsan ere,
irabazle atera gara, ex-aequo, Liza-
rraldekoekin batera.

Ilegalak gara, agiririk gabeko giza-

jo haiek bezala. Badira batzuk
beren nortasunaren ikurrak era-
kuts ditzaketanak lasai asko. Guk
ez. Guk legeari iruzur egiten dio-
gu. Eta haiek? Ez al digute guri egi-
ten iruzur?

Atzo sanferminak bukatu ziren.
Balantzea egiteko unean ondorio
gazi-gozaok atera ditugu, gauza onak
gauza txar askorekin nahastu bai-
tira aurten oso era agerian. Ikurri-
naren auzian irudimena martxan
jarri behar izan zuen Iruñeko alka-
te jaunak eta azkenean bidegabe-
ko legeari men egiteko beharrak
eraginda, masta huts bat ezarri behar
izan zuen balkoian, Nafarroan ez
dela oraindik nafar guztion senti-

menduak errespetatzen erakuste-
ko, "aniztasunaren erreinu" hone-
tan aniztasuna ez dela errespetat-
zen agerian uzteko.

Errespetu gutxi dago. Errespetu
falta ikaragarria. Gure nortasuna-
ri, herri bezala gure askatasuna-
ri egiten zaion errespetu faltatik
hasi, eta gure gorputzari, perso-
na bezala gure askatasunari, egi-
ten zaion eraso eta begirune fal-
ta izugarriaraino. Legeak nortasu-
naukatzen digu eta ezjakintasanak,
kulturarik ezak, gorputza eraso-
tzen digu. Eraso sexisten aurka-
ko kanpainak behar-beharrezko-
ak ditugu guretzat eta gure herrie-
tara etortzen diren bisitariarentzat.

Bestearen nortasuna eta gorpu-
tza errespetatzen irakatsi behar
diegu etxekoei eta bisitariei. Peda-
gogia egitea izango da gure lana
aurten herriko jaietan.

Legeari iruzur egin ez dakion erne
dagoena, erne ere egon dadin lege-
aren zainzailea izan nahi duen
edozeini ohartarazteko, bortxatzea,
bortxaketa bideoan grabatzea eta
bortxatua ehiza trofeo bezala era-
kustea delitua dela. Emakume fran-
tziar bat Gaztelu Plazako parkine-
an erasotua izan zen. Australiako
neska bat, Argaibaia aldean. Into-
lerantzia eta matxismoa ezin dira
normaltzat jo. Gure nortasunari eta
gure gorputzari begirunea zor zaie.

G

asteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 5%	euria: 4%	euria: 4%	euria: 5%	euria: 7%	euria: 15%	euria: 15%	
Min: 9 Max: 21	Min: 10 Max: 27	Min: 13 Max: 29	Min: 14 Max: 30	Min: 14 Max: 29	Min: 15 Max: 24	Min: 14 Max: 22	

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	34.5	13	4.4
Etxarri A.	32.6	10.4	2.7
Altsasu	31.5	12	4.3
Aralar	26	5.5	22.1
Urbasa	27	10	2.9

: ilargiaren aldia >>

ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
20	27	2	10

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Bazkide zozketa

MAIATZEKO SARIAK:

1. SARIA:

Ekainberri: 2 sarrera.
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.
Aquarium: sarrera bat.
Lacturale: esneki lotea.
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.

2.,3. ETA 4. SARIA:

Artazako Kanpina: %10eko deskontua.
Aquarium: sarrera bat.
Lacturale: esneki lotea.
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.

>> 11 galdera

Haizea Galarza

Iruñea Harrera Hiria ekimeneko kidea

Testua: Eñaut Agirrebengoa Apaolaza



GUAIXE FUNDAZIOA MEKNA proiektu izendatu du Nafarroako Gobernuak

Honek esan nahi du, Guaixeri emandako diruaren zati bat itzuliko zaizula errenta aitorpenean

150€

BEHERAKO EKARPENETAN

GORAKO EKARPENETAN

%40 bueltan
%80 bueltan

Milesker zure babesagatik!

1. Zein da Iruñea Harrera Hiria taldearen helburua?
Europara etorritako errefuxiatu eta migratzaileek bizi duten egoera azalatzeko, gobernu europarrek harturiko migraziopolitika gaitzesgarriak salatzearekin batera. Herriarren kontzientzia zioari ere garrantzi handia ematen diogu.

2. Nolako ekimenak egiten dituzue?
Astelehenero elkarretaratzeak egin ditugu gobernu ordezkariaren egoitzaren aurrean. Gainera, asanblada irekiak egiten ditugu. Talde hau herri ekimena da eta atak edonorendako daude irekita. Ahalik eta jende gehien egotea nahi dugu. Eta tarteka informazio banaketa eta performance moduko ekintzak egiten ditugu.

3. Zenbat pertsonak osatzen duzue?
Azken asanbladetan 20-30 bat kide elkartugara. Kide kopuruak ez du aldaketa handirik izan, baina ekintzetan geroz eta jende gehiagok parte hartzen du. Azken manifestazioak oso jendetsuak izan dira. Oso pozgarria da, erakusten baitu egiten dugun lanak oihartzuna duela.

4. Zergatik erabaki zenuen kolektiboan sartzea?
Interes pertsonaletik abiatu nintzen, informazioa lortu nahi nuelako. Gaiaz sentsibilizatzen eta taldeko kideekin harremanak estutzen joan nintzen. Eta denbora luzez parte hartzeko erabakia hartu nuen.

5. Europak errefuxiatuekiko hartutako jarrera nola definitu?

Europak interes ekonomikoak pertsonen beharren aurretik jarri ditu. Errefuxiatuen egungo egoera jarrera horren emaitza da. Gobernu europarrek giza eskubideak alde batera utzi dituzte, beraien interesak aurrera eramateko.

6. Jarrera hori salatzeke, gaur Greziara joanen zarete.
Egitasmo benetan potentetada, gaurtik 24ra artekoa. Bidai hau errefuxiatu eta migratzaileek Europara iristean bizi duten egoera salatu eta haiekiko elkartasuna erakusteko modu ezin hobea da. Karabananen bidez ezeko eman nahi diogu egungo Europari. Argi dugu ez dugula jendearen eskubideak bazter uzten dituen Europa hau nahi.

7. Bertan zer ekintza egitea duzue aurreikusita?
Greziara iritsi aurretik, zenbait herrialdetan geldialdiak eginen ditugu, bertako jendearekin esperientziak elkarbanatu, eta salaketa ekitaldiak egiteko. Behin Greziara iritsita, Europar Batasunaren eta bertako estatuen migraziopolitikak salatzen jarraituko dugu. Horretaz aparte, Europako mugetan blokeaturik dauden pertsonen gure autobusak eskainiko dizkiegu.

8. Nola otu zitzaizuen ideia?
Duela urte batzuk Mexikon egin zen zapatisten karabanaren moduko zerbait antolatzea otu zitzaigun. Beste kolektibo eta herrialde batzuekin elkarlanean aritzea beharrezkoa zela ikusi genuen eta Gasteiz Irekiak taldearekin eta Bilboko Errefuxiatuak plataformarekin elkartzu ginen. Haieireseku-

lako ideia iruditu zitzaien. Horrela, ekimena hiru taldeen artean eraman genuen aurrera. Ondoren Espainiako Estatuan ere zabaldu zen, eta beste zenbait herrialdeetako plataformek ere bat egin dute.

9. Halako egitasmo bat aurrera eramatea ez da lan xamurra izanen...
Egia da horrelako karabana bat antolatzeak lan handia suposatzen duela, baina kanpotik jaso dugun laguntza guztiak prozesua asko erraztu digu. Gainera, bidaiaren kostuei aurre egiteko hainbat egitasmo egin ditugu. Ez genuen inondik inora bidaiaren kostua oztopo izaterik nahi.

10. Nolako izan da erantzuna?
Oso ona. Herriarrek ekintzetan parte hartu eta laguntza ekonomiko eskaini dute. Eta asko Greziara joatera animatu dira. Jendearen jarrera txalotzekoa izan da.

11. Errefuxiatuek babes hori guztia eskertuko dute.
Dudarik gabe. Gobernuak bizkarra eman diete, baina jendearen elkartasunari esker bakarrik ez daudelaz sentituko dute. Oso garrantzitsua da errefuxiatuek Europako herriarren berotasuna jasotzea. Dena den, azpimarratu behar da errefuxiatuen krisiari konponbidea emateko giltza Europar Batasunak duela. Lehen urratsa mugen blokeoa bertan behera uztea izan behar litzateke. Une honetan pertsona orok migratzeko duen eskubidea urratzen ari da Europa, eta hala egiten jarraituko du mugak zabaldu ezean.